

GAIA: HEZKUNTZA FINLANDIARRA • ESPERIENTZIA: HIZKUNTZA TRATAERA BATERATUA • EKARPENA: ETORKINAK ETA ESKOLAKO HIZKUNTZA • AITOR-ENEA • JON ALONSO

hh  
hik hasi

103

5 EURO • 2005EKO ABENDUA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

*ELKARRIZKETA*

## Enkarni Genua

“Artearen bidez haurrak sortzailer hezi behar ditugu, baina ez bihar artistak izateko, baizik eta bizitzeko ”



# aurkibidea



8  
gaia

## HEZKUNTZA FINLANDIARRA ZERGATIK DA EREDUGARRI?

PISAko datuak ikusita, Finlandiako hezkuntza sistema onena dela esaten da. Hori ikustera, frogatzera eta ikastera joan dira Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioko eta HETELeko hainbat kide. Haien testigantza bildu dugu.



14  
elkarrizketa

## ENKARNI GENUA

Historiako irakasle izana da Enkarni Genua, baina azken 34 urteotan istorioak kontatzen aritu da txo-txongiloak hartuta. Mundu hori, haurrak, sormena, artea eta beste hainbat kontu azaleratu dizkigu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## HEZKUNTZA FINLANDIARRA

14 elkarrizketa

## ENKARNI GENUA

22 esperientzia

Hizkuntza Trataera Bateratua:

euskara + ingelesa + gaztelania

Iruñeko Hegoalde ikastola

26 ekarpena

Maila soziokulturala edota hizkuntzaren ezagutzarik eza?

Ignasi Vila

30 esperientzia

Aitor-enea: Gabonak aurreko egunak prestatzen

Donostiako Aitor ikastola

32 galdeidazue

Julen ETXEBERRIA

33 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Helena Baraibar eta Kristina Boan

42 Atzeko atetik


Jon Alonso

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagirre Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•GrafiK Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANIZA S.A.L. Azaleko irudia: Enkarni Genua (hik hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2005-XI-24). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# editoriala abendua

*Oraindik ere euskara ez dago gaztelaniaren eta frantsesaren maila berean hezkuntzan.*



**Urrats juridikoak eta praktikoak eskatzen ditu euskalduntze prozesuak, eta epe muga bat jarri behar zaie, gainera. Ezin da euskaldun gisa bizitzeko eskubidea ukatzen jarraitu.**

EAEko hiruko gobernuak Hezkuntza sailburuari hizkuntz ereduak berrazter ditzala agindu dio. Honek, berriz, aldaketak egin aurretik ikerketa sakona behar dela argudiatu du.

Egia da. Ikerketa sakonak beharrezkoak dira. Irakasle eta herritar guztiek badakitena datu zientifikoekin frogatu behar da. Nahiz eta borondate oneko herritar informatuek badakiten euskal ereduaren bidez soilik euskalduntzen dela.

Hizkuntz ereduak ezarri zirenean, irakasle ginenok eta haurren euskalduntzea gertutik jarraitzen genuenok, sumatzen genuen euskaraz irakastea zela elebidun orekatuak sortzeko bidea. Han azaldu ziren, ordea, hizkuntz eta hezkuntza adituak beste argudio batzuekin: ama hizkuntza zela, erritmoa, errespetua...

Intuizioa. Guk ez genuen datu zientifikorik. Baina gure borondate oneko lanari jarraituz, eta ikusirik ama hizkuntza erdarazuen ikasleria handitzen ari zela, kaleko eta komunikabideen hizkuntza erdara zela, egoera diglosikoan bizi ginela eta abar, intuizioz bederen, garbi genuen euskarak izan behar zuela eskolako hizkuntza, baldin eta erdararen parera iritsi nahi bazuen. Denborak hori frogatu egin du. Intuizioa, eguneroko lanean eta esperientzian oinarrituz gero, zientzia ere badela.

Hutsune juridikoa dago, ordea. EAEko estatutuak euskara eta gaztelania ditu hizkuntz ofizialak. Espainiako konstituzioak, berriz, gaztelania ezartzen du denontzat derrigorrezko. Horren ondorioz, gaztelania jakitea behartu liteke, baina euskara

norberaren borondatearen arabera gelditzen da. Hizkuntz menpekotasun juridiko hori zuzendu beharra dago. Katalunian duela 25 urte eman zuten urratsa Euskal Herrian emateke dago.

Legeak dioena bete. Legeak ere badio, bestalde, ikasleak, derrigorrezko eskolatzea amaitutakoan, bi hizkuntz ofizialen jabe izan behar duela. Ikerketen arabera, legeak dioena ez da betetzen. Borondateak soilik ezin baitu emaitza onik eman.

Murgiltzea da bidea. Egin nahi diren ikerketak egin daitezela, orain arte egindakoak ez badira nahikoa. Alabaina, ezin da denbora gehiago itxaron. Hutsune juridikoak konpondu beharko dira. Bai, baina, bitartean, eskolek ezin dute ikasleak baztertzeko, diskriminatzen eta euskaldun gisa bizitzeko eskubidea ukatzen jarraitu.

# kronika

Ikasleen Nazioarteko Egunean (azaroaren 17an), mobilizazioak izan ziren Euskal Herriko Unibertsitate eta institutuetan.

IAren esanetan, unibertsitateetan ikasleen % 90ek egin zuen greba, Bolognako prozesuaren aurka.

Kritika hauek egin dizkiote ikasleek: hezkuntza merkatuko produktu bihurtuko dela eta unibertsitate ikasketak dirudunentzat soilik izango direla, ikasleak eta euskal curriculum ez dituela aintzat hartuko, edota kredituen sistemarekin ikasleek lan gehiago izango dutela.

Institutueta, berriz, Ikasleen Eskubideen Kartaren inguruan antolatu zituen ekintzak IAk.

Ikasleen Eskubideen Kartak honako hauek aipatzen ditu, besteak beste: hezkuntzarako eskubidea, eskubide demokratikoak, hizkuntza eskubideak, ikasteko baldintza duinak, garraio duina, edota adierazpen askatasuna.



## Iparralde osoan euskarazko irakaskuntza ziurtatzeko sarea nahi du, 2012rako, Euskararen Erakunde Publikoak

Euskararen Erakunde Publikoak, euskarazko irakaskuntzaren diagnostikoa eginik, epe luzerako programaketa aurkeztu zuen urriaren amaieran. Helburua zera da: Iparralde osoan euskarazko irakaskuntza eskaintzeko sare "oso eta koherentea" osatzea, familia guztiek etxetik hurbil izan dezaten euskaraz ikasteko aukera. Horretarako, ama eskolatik lizeora arte euskarazko irakaskuntza izango dutela ere segurtatu beharko zaie, eta familiek euren haurrentzat eskola libreki hautatzeko moduan egon beharko dute.

2012rako, beraz, euskarazko irakasle postuak gehitu eta ikastegiak handitu beharko direla iragartzen dute, euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten hiru sareetan: irakaskuntza elebidun publikoan, pribatu elebidun katolikoan eta Seaskan (D eredu eskaintzen duena).

### 2012rako erronka zehatzak

Irakaskuntzako lehen mailatan eskola berriak sortuko dituztela iragarri dute hiriguneetan, eta lehentasunen artean jarri dituzte Baiona, Angelu eta Miarritzeko zentroak. Barnealdean, aldiz, eskola edo herrien arteko eskola elkargo txikiak sortzea bultzatu nahi dute. Hain zuzen, eskola elkarteok lehenetsi dituzte: Mehaine-Armendaritze, Amorotze-Behauze-Oragarre-Martxuta-Arruta, Bildoze-Onizpe eta Sarrikota-Ezpeize.

Bigarren mailan, irakaskuntza publikoan gutxienez, gela elebidunak bikoiztea proposatzen dute, 12 edo 16 irakasle postu berri sortuz. Lizeo mailan, Baionako Cassin lizeoan adar elebiduna irekitzea proposatzen dute, baina legez behartu gabe, bertako guraso eta zuzendarien esku utziz. D ereduan ikasle kopurua handituko dela aurreikusten dute (160 ikasle gehiago bai behintzat), gela berriak ireki beharko direlarik Donaixti eta Kanboko kolegioetan zein Baionako lizeoan.



Identitate guztiek dute bere mitoa eta bere metafora.  
Baina beharrezkoak ditugun metaforak dira  
nor garen eta zer nahi dugun imajinatzeko.

Joseba Zulaika



## Nafarroan 0-3ren ardura Gobernuak har dezan eskatu dute udalek

Nafarroan, Foru Hobekuntza onartu zenetik, udalek ere badute lege proposamenak egiteko eskumenik. Beraz, 66 udal elkartu dira lege proposamen baten bidez Nafarroako Gobernuari zera eskatzeko: beregain har dezala 0-3 urteko zikloaren ardura, herritarrei kalitatezko hezkuntza eskaini nahi bazaie. Lege proposamena Parlamentuan aurkeztu zuten udalek, eta euren xedea da gaiari buruzko eztabaida egin ahal izatea Nafarroako Parlamentuan (izan ere, apirilean gaia eztabaidatzeko aukera atzera bota zuen Parlamentuko Bozeramaileen Mahaia).

### Gobernuaren ardura izateko arrazoiak

Udalen esanetan, adin tarte horri merezi duen arreta eskaintzea ezinezkoa da ardura udalen esku badago. Arrazoi hauetan oinarritzen dira hori argudiatzeko: haur eskolak zama handiegia omen dira udalen ekonomiarentzat (Nafarroako Gobernuak ematen dizkien diru laguntzak ez dira nahikoak, euren ustez). Ikasleko 3.000 euro behar direla zehaztu du Gobernuak. Hortik % 42 Gobernuak ordaintzen du, % 33 gurasoek eta % 25 udalek. Baina udalen esanetan, errealitatean udalek askoz gehiago ordaindu behar izaten dute. Bestetik, 0-3 urteko zikloak hezkuntza sistemaren barnean egon behar duela diote, herritarren eskubidea delako administrazioaren eskutik kalitateko hezkuntza jasotzea.

### 66 udal eta 14.100 sinadura

Lege proposamena adostu duten udalen artean, herri hauetakoak daude: Barañain, Burlata, Altsasu, Lizarra, Bera, Zangoza, Gares, Leitza, Castejon, Artaxoa eta Tafalla. Plataformako bozeramalea, Tafallako IUN-NEB partiduko zinegotzia da, Javier Ibañez. Bere esanetan, 66 udal horien atzean 170.000 herritar inguru daude, eta nahiz legez behartuta ez egon, sinadura bilketa egin dute, 14.100 babesa jasoz.

EAEko Auzitegi Nagusiak ebazpen nahasia eman dio bigarren hizkuntza eskakizunik atera ez duten irakasle postu egonkorren aferari. Ebazpenak hala dio: ez da derrigorrezkoa bigarren hizkuntza eskakizuna edukitzea, EAEko irakasle egonkorrek. Baina, administrazioak justifikatzen badu lan hori betetzeko bigarren hizkuntz eskakizuna behar dela, orduan onartua izango da baldintza hori postua eman edo ez eman erabakitzeko. CC00 sindikatuak helegitea jarri zuen EAEko Auzitegi Nagusian. CC00k zera eskatzen zuen: batetik, irakasle egonkorren figura arautzen duen 2004ko dekretua indargabetzea, eta bestetik hizkuntza eskakizuna ez egiaztatzeagatik egonkortasuna galdu duten irakasleak berriro lehengo egoerara itzultzea. Epaiak ez du onartu ez eskaera bata eta ez bestea. Ez du dekretua indargabetu, baina administrazioari baldintza horren beharra egiaztatzeko eskatu dio, eta irakasle bakoitzaren egoera banan-bana aztertu beharko dela.

# GAIA

## Hezkuntza finlandiarra *zergatik da eredugarri?*





# Arrakastaren sekretuak ezagutzen

PISAko datuak ezagututa eta herrialdeak konparatuta, 15 urteko gazte finlandiarrek dira irakurmena, matematika eta zientzien neurketetan emaitza altuenak atera izan dituztenak. Arlo horiei begirata, Finlandiako hezkuntza sistema eredugarritzat hartzen da.

Beste hainbat arlo ere neurtu beharko lirateke hezkuntzaren osasuna zein den jakiteko, gaitasun horietara mugatu gabe, alegia.

Edonola ere, Finlandiako eredutik hainbat gauza ikas daitezke, eta halaxe egiaztatu dute hainbat euskal herritarrek. Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazoko eta HETELeko hainbat irakasle, zuzendari eta hezkuntzako profesional bertan izan dira. Ikusi, hausnartu, baloratu eta hemengorako baliagarri izan daitekeena aztertu dute.

Munduko hainbat herrialdetan haurrak eskolatzea edo alfabetatzea oraindik ere guztiz lortu gabeko helburua da. Beste leku askotan, ordea, haur guztiak daude alfabetatuta eta eskolara joaten dira, oinarrizko eskubide hori bermatua dago. Horien kasuan, hezkuntza sistema hobetzea da erronka, bai baliabideak eta azpiegiturak, bai alderdi pedagogikoa, langileen eta ikasleen egoera, parte-hartzea eta abar.

Zentzu horretan, hezkuntza sistemen osasuna zein den jakiteko hainbat neurketa egiten dira. Horietako bat da PISA (Programme for International Student Assessment). Hiru urteka egiten da azterketa hori. Lehendabizikoa 2000. urtean egin zen eta 43 herrialde-tako egoera aztertu zen. Bigarrena 2003an burutu zen 41 herrialdetan eta orain hirugarrena egiten ari dira 58 herrialdetan, 2006n bukatuko dena, hain zuzen. Irakurmena, matematika eta zientzietako gaitasuna neurtzen dituzte PISAk.

Orain arte egindako emaitzak ikusita, Finlandiako eskola sistemak lortu ditu emaitzarik onenak. 2003an 2000. urtean baino emaitza hobekiago lortu zituzten 15 urteko gazte finlandiarrek matematika eta zientzien atalean. Irakurmenari dagokionez, Finlandiak lehen postuari eusten dio. "Bizitzarako garrantzitsuak diren ezagutza eta gaitasunei lotutako kompetentzia klabeetan" ikasle finlandiarrek lortu dituzte emaitzarik onenak. Eta ez hori bakarrik; beste herrialdeekin konparatuta, ikasleen artean ekitate gehien dagoen herrialdea da. Beste modu batera esanda, neska-mutilen, ikastetxeen eta eskualdeen artean dagoen alde txikiagoa da Finlandian beste lekuetan baino.

## Onenen sekretuak

Zer du, bada, Finlandiako hezkuntza sistemak hain emaitza onak lortzeko? Zer nolako antolaketa eta prestakuntza dituzte? Besteak beste, honako ezaugarriek bideratzen dute arrakasta hori:

- **Ikasle bakoitzak bere gaitasunak ahal dituen gehien gara ditzake. Ikasle guztiak elkarrekin egiten duten lan.**
- **Irakasleak oso gaituak dira.**
- **Heziketa bereziari dagokionez, eredu inklusiboa daukate.**
- **Ikasleei etengabeko laguntza eta aholkuak ematen dizkiete.**
- **Lehen Hezkuntzan taldeak txikiak dira (20 ikaslekoak, gutxi gorabehera).**
- **Eskaera akademikoa altua da.**
- **Derrigorrezko irakaskuntzan ekitatea eta berdintasuna dira oinarri.**
- **Gizarteak asko baloratzen du hezkuntza.**
- **Irakasleen lanak balorazio sozial altua du.**
- **Hezkuntzaren gainean adostasun politikoa dago.**
- **Eragile sozioekonomikoek ez dute eraginik.**
- **Eskualdeen artean berdintasuna dago.**
- **Gurasoek gero eta gehiago parte hartzen dute.**

# G



# Antolaketa orokorra

Finlandia 5.200.000 biztanle dituen herrialdea da. Kohesio eta homogeneitate sozial handia dago herritarren artean. Munduko alfabetatze tasarik altuena du (% 100). XX. mendearen hasieran analfabetismo ez zela existitzen esan daiteke. Hezkuntzari dagokionez, funtsezkoa izan da mendeetan zehar suediarren eta errusiarren menpe egon den herrialde honentzat. Nortasun nazionala mantentzeko eta independentzia lortzeko bidea izan da berau.

## Haur Hezkuntza

Finlandian Haur Hezkuntza (0-6 urte) hezkuntza sistematik at dago, Hezkuntza Ministerioak ez du arautzen eta independentea da. Egoera hori familia finlandiarrek haurrak 3 urte egin arte

daukaten lan egoerarekin estuki lotuta dago eta askok ez dute zerbitzu horren beharrik somaten. Halere, egon badaude haur eskolak.

6-7 urteko haurrentzat Lehen Hezkuntzan hasi aurretik, ikasturte bat eskaintzen da. Berez ez da derrigorrezkoa, baina gehienak orduan eskolantzen dira (% 98).

Adin hauetako haurrentzat ez dago planteamendu orokorrik. Dauden haur eskola gehienak udalen iniziatibaz sortuak dira, nahiz eta pribatuak ere egon. Adin desberdinetako haurrak elkarrekin egoten dira eta ez dute adinen araberako planteamendurik egiten. Ikuspegi asistentziala eta hezitzailea dute eta haurren gaitasunen garapena estimulatzeko saiatzen dira.

## Derrigorrezko hezkuntza

7-16 urteko etapa honen planteamendua erabat bateratzailea da eta lelo nagusi bat errepikatzen dute behin eta berriro: **ez dadila inor erori**. Denek aurrera egin behar dute, denek igo, ez du inork errepikatu behar, denek lortu behar dituzte Curriculum Nazionalan diseinatutako konpetentziak.

Derrigorrezko etapa doan da bere osotasunean (irakaskuntza, garraioa, jangela eta eskolako materiala), eta gainerako etapetan irakaskuntza, jangela eta garraioa dira dohainik.

## Derrigorrezkoaren ondorengo etapa

Derrigorrezko hezkuntzarekin alderatuta, etapa honetan desberdintasunari egiten zaio lekua, **bakoitza bere eritmorra, aukerak, curriculumaren malgutasuna** (denbora, eritmoak, mailak, planak...). Inolako erreparorik gabe onartzen dute ikasleen erdiak ez direla unibertsitatera iritsiko, eta ez da ezer gertatzen.


Bestalde, derrigorrezko hezkuntzan etxetik gertueneko ikastetxea aukeratzeko dute gehienek; Batxilergoan, aldiz, beste elementu batzuk sartzen dira jokoan: zentroaren espezialitatea, Batxilergo gaitasunak edo unibertsitatera sartu diren ikasleen ehunekoa eta abar. Zentzu horretan, nahiz eta ikastetxe guztiak publikoak izan, bada go konpetentzia euren artean.

## Hezitzaileen prestakuntza unibertsitatean

Irakasleek formazio jarraia birtartez eguneratu dezakete euren prestakuntza eta eskaintza hori Udalen esku dago. Gobernuaren laguntzarekin antolatzen dituzte ikastaroak. Dena dela, hasierako formazioari adinako garrantzirik ez zaio ematen.

Irakasle izan nahi dutenek, bestalde, unibertsitatera jo behar dute. Eta

## Finlandiako hezkuntza sistema







honi bai ematen diotela garrantzia. Gaur egun unibertsitateko eskaintza, eskaera baino txikiagoa da eta % 10-15ak soilik lortzen du ikasketa horiek egitea.

Unibertsitatean hiru oinarritzko titulazio dituzte aukeran:

- Haur Hezkuntzako diplomatura: 2-3 urteko ikasketak.

- Lehen Hezkuntzako irakaslea: master formazioa da eta 4-5 urteko iraupena du.

- Gai edo arlo zehatzeko irakaslea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasgai bat edo biren ardura izaten dute. Bi ibilbide egiten dituzte unibertsitatean:

- 1) gaiari lotutakoa: matematika, kimika, geografia...

- 2) irakasle izateko ibilbidea: irakasle izateko prestatzeko formazio berezi bat da eta Hezkuntza Fakultatean ikasten dute hori.

Horiez gain, hainbat espezialitateko masterrak daude: heziketa berezia, plastika, musika, familia ekonomia...

Espezialitatea edozein delarik ere, eduki pedagogikoekin lotutako 35 kreditu komun dituzte denek, eta hor definitzen dira hezitzaileen prestakuntzako printzipio orokorrak:

- Ikerketa-ekintzan oinarritutako formazioa: etengabeko elkarrekintza dago ikertzen duten eta praktikan jartzten dutenaren artean programaren hasieratik.

- Practicum: praktikak ikasmaila guztietan eta garai guztietan egiten dira. Modulu bat bukatzen duten bakoitzean, hari lotutako ekintzaren bat egiten dute: behaketa, egonaldia... teoriarik ikasi dutena praktikan ikusteko. Praktiketako edukiak eta helburuak

programako edukiarekin erlazionatuta daude. Hasieran behatzen hasten dira eta benetako praktika profesionala eginez amaitzen dute: irakasle gisa jarduten dira eta eskolako ekintza guztietan parte hartzen dute: irakasle bilerak... Ikasle talde baten jarraipena egin dezakete urtez urte, eta horrela taldearen garapena ikus dezakete.

- Teoria eta praktikaren arteko lotura estua dago. Horrela, ezagutza teoriakoan oinarrituz, eguneroko lanean sortzen diren arazoei irtenbidea ematen ikasten dute. Ez dute metodologia bakar bat erabiltzen; hainbat metodo lantzen dituzte, gero lanean dabiltzan egokiena suertatzen zaiena hautatzeko.

### Udalen gertutasuna

Udaletxeen zereginak pisu handia du. Udalak planifikatzen, eraikitzen eta mantentzen ditu zentroak. Langileak berak kontratatzen ditu (beti zuzendaritzaren lana gainbegiratur). Zuzendaritza ere berak izendatzen du. Azken finean, ikastetxearen funtzionamenduari ardura berea da, bera baita titularrak. Berak ezartzen ditu zentroaren autonomiaren oinarriak.

Beste aldetik, zentroa eta irakasleak (batez ere zuzendaritza) dira eskolaren funtzionamenduari arduradunak Udalaren aurrean. Irakasleek autonomia handia dute funtzionamendurako eta Curriculum Nazionala ezartzeko eta egokitzeko. Nahiz eta zuzendaritza eta Udala gainbegiratzen jardun, ez daude mugatuta.

Ikastetxeko estamentuek zentroko batzordeetan parte hartzen dute, eta baita herriko Hezkuntza Batzordean ere.

## Dezentralizazioa da giltzarri

Finlandiako hezkuntza sistemaren ezaugarrietako bat dezentralizazioa da. 20 urteko dezentralizazio prozesu bat eraman dute aurrera hezkuntza hobetzeko helburuarekin. Gaur egun administrazioen zeregina honela banatzen da:

### Hezkuntza Ministerioa:

- Hezkuntza legedia eta estrategia
- Hezkuntza planen garapena
- Hezkuntzarako aurrekontuak
- Helburu orokorrak
- Lortu beharreko emaitzak
- Akordio europarrak eta nazioartekoak

### Hezkuntza Batzorde Nazionala

(hezkuntzako adituz osatutako batzordea eta Hezkuntza Ministerioaren laguntzaile):

- Etapa bakoitzerako curriculumen diseinua
- Abilezien eta ikasketen ebaluazioa
- Hezkuntzarako kudeaketa sistemak
- Zerbitzuak Ministerioarentzat, eskolentzat, hezitzaileentzat...

### Toki-administrazioa, Hezkuntza Batzordek eta Herrien arteko Federazioak:

- Tokiko eta eskualdeko estrategia
- Tokiko eskola sarea
- Tokiko curriculumak
- Irakasle, zuzendarien eta beste zerbitzuen kontratazioa
- Matrikulazioen antolaketa
- Toki bakoitzean ikastetxeek beste en esku uzten dutena desberdina da

# Bisitari euskaldunen iritziak

Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioak antolatuta, Finlandiara bidaliatu du 40 laguneko talde batek. Aldi berean, HETELetik joandako 20 lagunekin egin dute topo. Bertatik bertara ikusi dute eskola finlandiarretan egostendena, gero hemen, etxean, baliagarri izan daitekeena erabiltzeko.

Sartu bezain pronto, espazio zabala eta lasai duten ikastetxeekin egin dute topo, eta barruko diseinua ere ongi pentsatua dagoela antzematen omen da. Hala dio Oñatiko Txantxiku ikastolako Andoni Zendoia zuzendariak. “Zaila da hitzez adieraztea, baina ikastetxe haiek ikusita zera pentsatu nuen: nik ikastola berria egin behar badut, hemengo arkitektoari edo ingeniariari Finlandiako eraikinak ikusteko eskatuko diot”.

Finlandiako hezkuntza sistemaren arrakasta gizarte eredutik datorrela uste du Mari Tere Ojanguren Lauaxeta ikastolako ikasketa buruak: “Gizarteak kulturaren eta zerbitzu sozialetan duen arrakasta islatzen da hezkuntzan ere”. Zentzu horretan, gizarteko giro lasaia eta bizikidetzak eskola barruetan ere arnasten omen da.

PISAko emaitzak ikusita, garbi dago hasieratik oinarriko hezkuntza sistemaren ardatzak irakurketa eta matematika direla. Curriculum guztia arlo horien inguruan antolatzen da. “Guk curriculumak gero eta eduki gehiagorekin aberasten dugu, eta haiek, ordea, argi daukate lau gauza landu behar direla eta beste ezaguera instrumental guztiak horiek lantzeko direla”, dio Mari Terek.

Irakurmenean lortzen dituzten emaitzak irakurzaletasunarekin lotuta



daude. 10 urtetik gorako hiritarren % 90ek egunkaria irakurtzen du normalean. Telebista, zinema eta filmak jatorrizko hizkuntzan eta finlandierazko azpitoluekin ikusten dituzte, eta Begoña Kortajarena Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako orientatzaileak dioen moduan, horrek bi gauza lantzeko aukera ematen diete: “batetik azkar irakurtzen ikasten dute, eta bestetik entzumena lantzen dute beste hizkuntza batean”.

Espoo-ko Kilonpuisto Derrigorrezko Hezkuntzako eskolan (7-16 urtekoak joaten dira) goizeko 8:00etan sartzen dira eta arratsaldeko 4:00etan irteten. “Orduetgia gurasoen lan ordutegiari egokituta dago eta arratsaldean familian elkarrekin egoteko denbora asko dute”, dio Begoña Kortajarenak.

Gela bakoitzean 25 haur inguru egoten dira, baina hizkuntzak eta matematika lantzeko bikoizketak egiten dituzte, ikasle kopurua erdira murriztuz. Tailerretarako, ostera, 8-10 ikasleko taldeak egiten dituzte. “Horrekin batera, ikasleek talde batetik bestera mugitzeko aukera daukate; horrela, bere gelako eritmoa jarraitu ezin due-

nak, maila baxuagoko gelara jo dezake”, Begoña azaldu digunez.

Didaktikari dagokionez, desberdintasunak antzeman ditu Mari Terek. “Prozeduren inguruan antolatzen da guztia. Proiektuen bidez, eskuak erabiliz eta ekinez jabetzen dira gauzez eta hala lantzen dituzte edukiak”.

Heziketa bereziko izugarriko bitartekoak dituztela azpimarratu dute denek. “Gela batean behar bereziko sei ikasleekin irakasle bat ikusi genuen. Eta horrekin batera, laguntzaile bana bi ikasleko”, dio Begoña. “Bertan daukate medikua, logopeda, psikologoa...”. Baliabide horiek udalak ematen dizkie, eta Andoni Zendoia iritzi, horrek izugarri laguntzen du: “Udala ikastetxetik oso gertu dago eta hurbiltasun horrek beharrak hobeto asetzeari dakar. Ordaintzen dituzten zergak ere altuak dira, gurearen bikoitzak edo, baina ordainean zerbitzu publiko handiak eskaintzen dizkiete”.

## Hautaketa proben mugak

Derrigorrezko Hezkuntza bukatu ostean, ordea, aukera zabaltasun hori asko murrizten delako sentsazio hartu



dute Euskal Herritik joan direnek. Batxilergoa ikasi nahi duten % 30-35 kanpoan gelditzen dira. “Institutu bakoitzak bere hautaketa proba propioak ditu: batzuek azken hiru urtetako notak hartzen dituzten kontuan, beste batzuek espezializazioaren arabera probak eginarazten dituzte, beste batzuek gutxieneko nota eskatzen dute...” dio Begoñak. Eta gauza bera gertatzen da gero unibertsitatean. “Institutura joan ezinik gelditzen diren gazteek heziketa zikloak egiten dituzte. Hori dela-eta, ikasi gabe ez direla gelditzen diote eta zikloetara joanez beti daukatela aurrera egiteko aukera”. Mari Tereren ustez, “hemen aukera gehiago dago goi mailako ikasketak egiteko. Ez dut baloratzen gizarte bantentzat egokia den edo ez hainbeste goi mailako tituludun izatea, baina aukera aldetik, hemen aukera gehiago dago”.

Batzilergoko institutuak espezializatuak dira. Vantaa-ko Vaskivuori ikastetxea, esate baterako, musikan eta dantzan espezializatutakoa da. Ikasle guztiak derrigorrez ikasi behar duten oinarriko curriculumak, ordutegiaren % 63-68 betetzen du, eta gainerakoak norberak hautatzen du. Ordutegi oso malgua dute eta bakoitzak antolatzen ditu bere moduluak. Normalean hiru urtetan egiten dira Batxilergoko ikasketak, baina batzuek bitan egiten dituzte eta beste batzuek lautan.

**Harritzeko modukoak dira eraikinak, irakasleek duten prestigioa, irakasle izateko jasotzen duten formazioa, Batxilergoko hautaketak eta dituzten balalibaideak.**

### Lanbide eskoletatik hartzeko modukoak

Lanbide eskolen eraikinak, gainerakoak bezala, inbidia sortzeko modukoak direla dio Amaia Guijarro HETEL-eko gerente eta nazioarteko harremanetarako arduradunak. “Horrez gain, asko gustatu zaigu eskolei diru laguntzak ematea euren produktibitatearen, berrikuntzen, lan mundurako sarreraren, proiektuen eta abarren arabera”. Enpresekin duten harremana ere oso estua da, “eta gainera, irakasle eta zuzendariak aurretik enpresetan urte asko lan egindakoak dira. Horrek beste erlazio bat sortzen du”.

Nahiz eta titulurik ez eduki, lanbide bat ezagutzen dutela frogatzen dutenei gaitasun hori onartzen zaie, titulua ere emanez batzuetan. Orain dela 10 urte hasi ziren horrekin eta hemen berriki hasi dira.

Biztanleriaren % 54 etengabeko formazioan aritzen da, eta horrek lanbide eskolen garrantzia areagotu egiten du.

### Irakasleen prestigioa eta prestakuntza

Denak harrituta gelditu dira irakasleek duten prestigioarekin, irakasle ikasketak egiteko dagoen hautaketa prozesuarekin eta unibertsitatean ematen duten prestakuntzarekin. Hezkuntza Fakultatean aurkezten diren ikasle-gaietatik % 15 baino ez dituzte aukeratzten. “Irakasle lana hain baloratua izateko arrazoia zein den galdetu genuen unibertsitatean eta arrazoia historikoa zela erantzun ziguten” azaltzen digu Marian Bilbatua HUHEZIKo irakasleak. “Finlandia mendeetan zehar egon da Suedia eta Errusiaren menpe eta euren kultura mantentzeko zeukaten eremu bakarrenetarikoa hezkuntza zen. Hor-tik dator hezkuntzari ematen dioten garrantzia”.

Ikasketen ardatza hausnarketa da.

“Formazioaren azken xedea irakasleei tresnak ematea da, egoeraz eta jardueraz hausnartzeko eta hobetzeko” argitzen du Marianek. “Ikasleek karrera hasten dutenean, dena dakitela uste dute, hezkuntzan esperientzia luzea dutelako. Euren lan garrantzitsuena esperientzia hori berrikustea, aztertzea, baliagarriak diren gauzak positiboki baloratzea... da. Alegia, hausnarketa bat egitea norberaren esperientziaren gainean, gero hobetzen joateko”.

Hausnarketa eta teoria eta praktikaren arteko lotura estua, horiek dira prestakuntzaren giltzarri.

### Guk ere badugu zer erakutsia haiei

Zenbait gauzatan eredugarri baldin badira ere, beste zenbait arlotan gure eredua hobe dela diote. Haur Hezkuntzaren kasuan, adibidez, hemen landuago dagoela diote, han ez bezala, hezkuntza zerbitzu modura kontsideratua dagoelako, besteak beste.

Horrez gain, Tere Ojangurenen iritzi, “irakasleek oso goi mailako prestakuntza dute, baina ez dute elkarrekin lan egiteko ohiturarik. Ez dute tutoretzarik, ez dute taldean lan egiten, ez dute formazio iraunkorrik, ez mintegirik, ez berritatzeko proiekturik, ez ikastetxearen beharretara egokitutako prestakuntzarik”.

Andoni Zendoiaeren ustez, “hemen alderdi emozionala gehiago lantzen dugu, segur aski ezaugarri sozialengatik, klimatikatik eta abar”. Berak dioen bezala, “alderdi positiboak ikastera joan gara, baina guk ere gure alde positiboak baditugula ahaztu gabe”.

# enkarni genua

## *ELKARRIZKETA*

Historia irakasle izana. Gaur egun titiriteroa.

“Artearen bidez haurrak sortzaile hezi  
behar ditugu, baina ez bihar artistak  
izateko, baizik eta bizitzeko”





# enkarni genua

E

**//** Txotxongiloak indar handia du. Hurrek ez dute atzean nor dagoen ikusten, eta berarekin identifikatuta sentitzen dira. Askotan txotxongiloari kontatzen diote beste inori esan ez diotena. Halako indarra izanda, irakasleek beren eskuetan ez edukitzeak pena ematen dit. Gelan lantzeko irekitzen dituen aukerak mila dira.

**//**

1971n sortu zuen “Txotxongilo” taldea, Manolo Gómez senarrarekin batera. Euskarazko lehen txotxongilo taldea zen, gerra ostean. Oraindik gogoan du lehenengoz titiritero lana egin zutenekoa: alabaren ikastolako jaialdian, txotxongilo emanaldia eskaintzea bururatu zitzaien. Espero ez zutela, beste ikastoletatik deika hasi zitzaizkien. Mundu horretan buru-belarri sartzea erabakiko zuten laster.

34 urteotan 23 obra eszenaratu dituzte, tartean Euskal Herrian klasiko bihurtu den “Erreka Mari”. Argitaratutako diskoak zein liburuak 30etik gora dira, eta bi metodo liburu nabarmendu dira: *Bene-benetan... katua berbetan* eta *Zabalduek oihala*.

Historiako irakasle izana da Enkarni. Gaur ere, herririk herri istorioak kontatzen dabilen andereño berezia da.

**Irakasle izan zara urte askoan. Irakaskuntzak eta antzerkiak, zer dute antzeko?**

Lehendabizi, oso argi izan behar duzu zer irakatsi nahi diezun, edo zer den kontatu nahi duzuna. Bestetik, eskolak ematen ari zarenean ere ezin duzu lineala izan, ezin duzu dena intentsitate berean mantendu; zure sokak dituzu tira eta askatu aritzeko, baina uneoro joko hori zuzentzen duena zu zarela jakinda. Hurrei tarte utzi behar diezu barruak askatzeko, hitz egiteko, zarata ateratzeko, baina zuk badakizu memento batean hori bukatu egingo dela, zuk “txas” egin orduko, eta zuk nahi duzulako.

Eta aspergarria ez izatea, bietan da funtsezkoa. Historiako irakaslea izan naiz, eta nire helburua zen ikasleek nirekin egon ondoren historia ez gorrortatzea. Zeren 14 urteko hurrek oraindik ez dute gaitasunik historia ikasteko. Zuk gako batzuk irakatsi behar dizkiezu, transmititu behar duzu historia oso garrantzitsua dela zeure burua ezagutzeko, eta zer gertatu den eta gerora zer gerta daitekeen jakiteko. Baina, batez ere, ez dituzu aspertu behar. Niretzat irakasleak lor dezakeen goren hori da; ikasleengan ezagutzeko, bilatzeko ‘xomorro’ hori sartzea.

**Istorioetan zer da bilatzen duzuna? Zer da interesatzen zaizuna?**

Niri beti zerbait esatea interesatzen zait; alegia, obra ez bihurtzea estetika hutsa. Zerbait esan, baina ez “ikasbide” zentzuan ere. Adibidez, Erreka Mari obrarekin argi eta garbi komunikatu nahi dut jende desberdinarekin behar dugun errespetua. Agustina eta Katalin bizilagunek ez duten Erreka Mari maite, lamina delako. Mezu hori antzerkian zehar errepikatu egiten da behin eta berriro. Nire ustez, garrantzia duten gauzak behin eta berriro errepikatu behar dira, esaldia behin botatzea ez da aski. Emanaldia bukatzean hurrek oso garbi esan behar dute zer den obrak kontatzen duena; bestela, ulertu ez duten seinale.



**Publikoak mezua erabat kontzienteki hartzea da, beraz, zure helburua.**

Hain zuzen, *Printze Txikia* obra horrexegatik egin nahi izan nuen: 7-8 urteko haurrek liburu hartu eta ez dutelako ulertzen. Zergatik? Gauza asko esaten delako. Niretzat oinarri-oinarrikoak ziren bi ideia aukeratu nituen liburutik, eta gero obran zehar behin eta berri esan garbi, ulertarazteko. Lehen ideia da, lagun bat edukitzea oso gauza polita dela, baina ez dela batere erraza. Eta mezu horixe da, justu, liburuaren hari nagusia. Bigarren ideia da, maitasunak ematen duela edertasuna. Mezu hori liburuan agertzen da, Printze Txikiak basamortuan lore pilo bat ikusten duenean, lore ederrak denak, eta azeriak zera esaten dionean: “arrosa horiek guztiak oso politak dira, bai, baina ezzure arrosa bezain politak; zeren zure arrosa polita da, zuk maite duzulako”.

**Euskal Herriko kondairetara jo duzue askotan. Zergatik?**

Hasi ginenean, 1971n, euskaldun berri-berria nintzen. Pentsa, lehen emanaldira ahotsa kasetean grabatuta eraman genuen, ez ginen-eta zuzenean hitz egitera ausartzen. Donostiarra naiz, ama Burgoskoa da, eta garai hartan nire etxean bezalaxe inguruko etxe denetan ere, euskara bazenik jakingo genuen akaso, baina, guretzat, “Ipar poloa” existitzen zen neurri berean. Haurrak ikastolara bidali genituen, baina ez euskara ikasteko, eskola interesgarria iruditzen zitzaigulako baiziki. Ni hiru seme-alaba eduki ondoren hasi nintzen euskara ikasten, ikastolatik zetozenean ‘liburuak’ esatean zer zen jakiteko, beste asmorik gabe. Gure euskara andereñoa Mari Karmen Garmendia zen.

Eta euskararen bidez herri bat deskubritu genuen. Orduan interesatu zitzaigun bertako historia, eta ohiturak, eta literatura, ordura arte guretzat ez baitziren existitzen. Joxe Migel Barandiaranekin harremanetan jarri ginen gero, eta haren bidez beste mundu bat deskubritu genuen. Beti saiatu gara he-



mengo paisaia, hemengo ohiturak eszenaratzen, antzerkia Euskal Herrikoa zela islatzen.

**Txotxongiloetan, zuri, zein komunikazio eredu gustatzen zaizu eta zein ez?**

Komunikazioa diodanean, ez da beharrezkoa haurrek txotxongiloekin hitz egitea. Hitz egiten badute ondo, baina ez zaigu gustatzen komunikazio beharturik.

Adibidez: txotxongiloa hartaren bila dabil, eta hartza zuhaitzaren atzean dago ezkutatuta. Egoera horretan, haurrak parte hartzeko hainbat modu daude. Bata da, txotxongiloak esatea “gustura egongo nintzateke bada hartzarekin, baina ez dakit hemen ote dabilen...”. Hori esatea aski da, jada badituzu hiru haur “zuhaitzaren atzean dago!” esaka. Istorioan sartuta badaude, modu naturalean ateratzen zaie txotxongiloari hitz egitea. Niri komunikatzeko modu hori da gustatzen zaidana.

Beste modu bat da esatea: “Aizue, hartza ikusi duzue?”, eta haurrek “Baaai!”. Hori ere ez dago hain gaizki, interesatzen zait.

Eta hirugarren modua: “Neska-mutilok, hartza ikusi al duzue?”, haurrek “Baaai!”, “Eta non dago?”, eta haurrek eskuarekin seinalatuz, garbi-garbi: “Arbolaren atzean!”. Eta txotxongiloak

**// Haurrek ulertu egin behar dute zer den obrak esan nahi duena. Horregatik garrantzia duten gauzak behin eta berriro errepikatu behar dira, esaldia behin botatzea ez da aski.**

***Printze Txikia* obra horrexegatik egin nahi izan nuen, haurrek ez dutelako liburu hori ulertzen, gauza asko esaten delako.**



# enkarni genua

E

**// Haurrek ez dute antzerkia publiko zabalaren aurrean (gurasoen aurrean-eta) egin behar, zeren horretarako zeure buruarengan segurtasun handia behar baituzu. Gorputz adierazpena, hizkuntza zein plastika adierazpena lantzetik hasi behar da, eta hori gelakideen aurrean. Baina jakina, nortasuna lantzea bide luzeagoa da, eta ez da gurasoen aurrean erakuts daitekeen zerbait.**

//

“Hemen? Lur azpian?”, “Ez!”, eta gainera “Ez dut entzuten!” eta haur denak garrasika. Hori haurrak ergeltzat hartzea iruditzen zait, edo titiriteroa ergeltzat hartzea.

## Zer bilatzen duzu estetikan?

Narrasa ez izatea; alegia, estetika zaintzea eta denbora eskaintzea horri. Eskolako aretora sartu orduko ikusten duzu estetika zaintzen duten edo ez. Eta askotan, aretoa eskolako trastelekua da: mahai zaharrak hantxe utzita, duela bost urteko Gabonetako izar oker bat hor eta zuhaitz pusketa bat hemen (eta bota ez badute, hurrengo jaialdian ere hori erabiliko duten seinale!). Narrasa ez izateak du garrantzia. Oholtzan etxe bat jarri behar bada, ez egin utzikeria, di-da, betiko etxea: joan liburutegira, ikusi ereduak, aukeratu egokiena... denbora eskaini.

Hortik aurrera bakoitzak bere estetika du. Niretzat, memento honetan, sinpletasunean aurkitzen da edertasuna. Lau gauzatxo aski dira eszenan, eta gainera, haurrek euren irudimenaz osatzen dute ez dagoen hori.

**Horretan ikusten da eskolan zer garrantzi gutxi ematen zaion arteari.**

Teorian denok oso ados gaude artea lantzeak duen garrantziaz, baina praktikan, antzerkia ez bada lantzen, inork ez du protestatzen. Zaltetasuna duen irakaslea egokitzen bazaie soilik lantzen dute dramatizazioa haurrek. Pentsa hori matematikarekin gertatuko balitz! Gainera, eskolari gero eta gehiago eskatzen zaio, eta azkenean ezinezkoa da tarte txiki bat ere lortzea; baina garrantzitsua bada.

## Eta zergatik da hain garrantzitsua artea hezkuntzan?

Haurrak sortzaile hezi behar ditugulako. Baina sortzaile ez bihar artistak izateko, baizik eta bizitzeko. Zeren gaur egun, lana aurkitzeko sortzaile izan behar duzu, karrera bukatuta inor ez baitzaizu etxera bila etorriko. Bizitzan aurrera egiteko eta arazoei soluzioak bilatzeko irudimena oso garrantzitsua da, eta hori artea landuz gartzen da.

## Nortasuna lantzeko ere garrantzitsua da.

Oso. Gaztelaniaz ‘qué tablas tiene’ esaten da pertsona batek jendaurrean hitz egiteko eta estutasunetatik irteko gaitasuna duenean. Bada esaera horrek jatorrian zera esan nahi zuen: esze-







na-  
ko tau-  
lak zapal-

duak zituela ('tablas' horiek, eszenako 'taulak' dira).

Saioen ondoren, 8-9 urteko neska mutilek askotan galdetzen didate: "Eta zuri ez dizu lotsarik ematen antzerkia egiteak?". Jakina, hori galdetzen dutenak haur lotsatiak dira, eta antzerkiaren bidez, batzuetan, muga hori puskatzea lortzen dute, beren atzean irakasle on bat baldin badago.

**Publiko aurrean moldatzeko, zeure buruaz oso seguru egon behar duzu, zeure burua landuta eduki behar duzu.**

Hori da. Horregatik hurrek ez dute antzerkia publiko zabalaren aurrean (gurasoen aurrean-eta) egin behar. Lehendabizi, gelan egin behar dute, kideekin. Dramatizazioak bere prozesua dauka, baina eskolan gidioa buruz ikastera eta gero horixe jendaurrean esatera murrizten badugu, gauza batzuk landuko ditugu (batez ere memoria), baina ez benetan garrantzia duten beste hamaika: gorputz eta keinu adierazpena, hizkuntza zein plastika adierazpena edo sormena, esaterako. Eta justu hortik hasi behar da. Eta behin beren buruarekiko segurtasun handia hartu dutenean, orduan egin salto gidioira eta publiko handiagora (eskola-ko txikienen aurrean antzeztea da beti aholkatzen dudana).

Baina azkenean, eskolako ohitura dela, gurasoak direla, "APA", "EPA" eta "IUPA" guztiak direla... urtean behin antzerkia egin beharra dago. Besteak beste, hori errazagoa delako haurren nortasuna lantzea bainol. Horrek denbora gehiago eskatzen du, nortasuna lantzea askoz ere bide luzeagoa da, eta emaitza ere ez da ikusten urte amaierarako, ez da guraso denen aurrean erakuts daitekeen zer bait.

**Igeri jakin aurretik putzu handira botatzen ditugu: urtean behin guraso denen aurrean antzerkia egitera. Horrek zer ondorio ditu heziketaren ikuspegitik?**

Itxuraz denok dakigu haurren obra bat dela eta, beraz, "okerrek" ez dutela axola. Baina azkenean guraso denen aurrean emaitza ona loru nahi izaten dugu. Horregatik, paperak banatzera-koan irakasleak gelako sinforosa jarriko du protagonista, eta haur lotsatia zuhaitz mutua izango da. Protagonistari jantzia ere azkenean amak josiko dio, hala "politagoa" gelditzen delako, nahiz eta horrekin bidean gauza asko galdu. Gainera, zenbat eta gehiago entseatu, orduan eta seguritate handiago izango dugunez, azkenean urte osoa dedikatzen zaio obra bakar horri. Eta pentsa, zuhaitza dena urte osorako da zuhaitz, eta entseguz entsegu azpimarratzen diozu gainera, arbola aurpegia jartzeraino. Eta aztertzea da nor diren arbola: euskaraz ondo ez dakitenak, lotsatiak, hitz totelak... Hori dena heziketa ikuspegitik ez da, behintzat, zoragarriena.

**Txotxongiloak, gela barruan, zer lantzeko aukera ematen du?**

Haur txikiak, 2-4 urtekoak, ez dira gauza txotxongiloa eskuan hartu eta antzezteko. Baina adin horretan irakaslearen eskuan txotxongiloak egon behar du, batetik eredu delako (haren arabera egingo dute gero hurrek), eta bestetik, tresna izugarria delako.

Txotxongiloak indar handia du. Hurrek ez dute atzean nor dagoen ikusten, eta identifikatuta sentitzen dira txotxongiloarekin. Adibidez, gure emanaldien ostean hurrei marrazkia egiteko eskatzen diegu, eta kurioa da nola gehien-gehienek ni ez nauten marrazten, nahiz eta eszenan agertzen naitzen. Horrek esan nahi du haurrentzat ni hor ez nagoela. Horregatik, hurrek askotan txotxongiloari kontatzen diote irakasleari esaten ez diotena, edo gehiago askatzen dira, gehiago hitz egiten dute.

Gakoa dairakasleak nola erabiltzen duen txotxongiloa. Maiztasunez (aste-



**// Hasi ginenean, kamionetatik trasteak eta trasteak ateratzen ikusten gintuztenean, askotan esaten ziguten 'ez atera hainbeste, lasai, haurrentzako da-eta!'. Hori tristea da. Estetikak garrantzia du, horrela ematen diozu garrantzia publikoari.**



# enkarni genua

# E

**// Historiako irakaslea izan naiz, eta nire helburua zen ikasleek nirekin egon ondoren historia ez gorrotatzea. Zeren 14 urteko haurrek oraindik ez dute gaitasunik historia ikasteko. Zuk gako batzuk eman behar dizkiezu. Niretzat irakasle batek lor dezakeen gorena hori da; ikasleengan bilatzeko, ezagutzeko 'xomorro' hori sartzea.**

**//**

an behin edo) ateratzen badu txotxongiloa, pixkanaka pertsonaia hori gelako lagun bihurtzen da. Eta orduan zer landu haren bidez? Edozer, zeren pertsonaia horren bidez planteatuz gero, haurrak jada motibatuta dituzu. Aukerak mila dira. Niri pena ematen dit tresna hori, halako indartsua izanda, irakaslearen eskuetan ez egoteak, zeren behar duen bakarra bide horretan sartzeko gogoia baita.

**Duela 25 urte Udarregi ikastolako gela batera joaten zinen zu, astero-astero, "Leire" txotxongiloarekin. Orduan 6 urteko haur zirenak 25 urte geroago ere gogoratzen dira Leirerekin.**

Bai? Pentsa txotxongiloak zer indar duen! Zenbat memento, zenbat irudi gorde ditugu memorian 6 urte genituenekoaz? Eta horietako bat da txotxongilo hura!

Marije Otamendiren gelara joaten nintzen "Leire" rekin. Irakasleak aurretik esaten zidan zer arizirentz lantzen, edo zer gertatu zen gelan, eta hori indartzeko erabiltzen genuen Leire. Esaterako, udazkenean eskuan hosto bat zuela sartuko zen gelara, "zergatik daude hosto denak lurrean?" galdezka, eta hurrengo astean joaten zenerako, udazkenean zer gehiago gertatzen zen etxean galdetzeko eskatuko zien hurrei. Edo haur bat betaurrekoak jarri zizkiotela eta triste bazebilen, Leire betaurrekoekin azalduko zen gelara. Irakurketa-idazketan hasi berriak ziren haurrak, eta hori ere aprobetxatu egin genuen: nik joaterik ez nuenetan, gutun bat idazten nien Leireren izenean, letra handietan eurek irakurtzeko, adibidez, esanaz: "Gaixorik nago. Zer egin behar dut sendatzeko?", eta gero haurrek idazten zidaten. Haurrentzat Leire benetako laguna zen, eta guraso bat baino gehiago joan zitzaizkion irakasleari galdezka: "Baina nor da Leire? Gaixorik omen dago, edo ez dakit zer esaten duen gureak...".



**Zer motatako pertsonaiekin identifikatzen dira gehiago haurrak? Nor dira haurrentzat hurbilenak?**

Leire oso goxoa zen, baikorra, edo zertarako prest beti. Hurrengo urtean justu kontrako pertsonaia sortu nuen, ikusteko ea funtzionatzen zuen hark ere: "Kaximiro" zezena, zakarra, beti petral, hurrei ere orroka hitz egiten ziena. Behin, haur batek zezen zakar hari kontatu zion, beste inori baino lehenago, bere ama haur bat ekartzekotan zela. Pertsonaia hark ere funtzionatu zuen. Gainera, denborarekin noratasuna aldatzen joan zitzaion, eta azkeneko haurrentzat egoskor xeble bat zen, beti puzkerka zebilena. Barre asko egiten zuten harekin.

Behin, gazteei emandako ikastaro batean, bazen 20 urtetik gorako mutil bat, hitz-totela zena. Hasi ziren oihalaren atzean txotxongiloa egiten, eta han ez zen totelik ageri. Ni harrituta, "honek zer paper egiten zuen bada?". Antzezpena bukatzean, han azaldu zen erregea eskuan zuela. Esan nion, "baina zer gertatu da?", eta berak: "ee-eske tootela nii naiz, e-ez erregea!".

Txotxongiloa toteltasuna lantzeko terapia bezala ere erabiltzen da, batzuetan toteltasuna urduritasunaren ondorio baita. Bada mundu mailako erakunde bat ere, "Marionette Terapy", Frantzia kokatua, eta gaixo psikotiko eskizofrenikoekin aritzen dira.

Haurrekin dramatizazioa lantzeko txotxongiloak askotan gauzak erraztu egiten ditu, zeren hor txotxongiloa baita hizketan ari dena, eta haurra babestuta sentitzen baita.



# Durangon... Emostazu musutxue

## Zure karikatura musu truk

Durango Azokan  
harpidedun  
egiten bazara,  
Martintxo eta Exprai  
gure marrazkilariek  
karikatura bat  
egingo dizute.



**948 22 71 25**

telefonora deitu edo  
[nabarra@nabarrera.com](mailto:nabarra@nabarrera.com)  
posta elektronikora idatzi,  
zure datuak ulzi\*,  
eta Nabarra aldizkaria  
**bi hilabetez dohainik**  
jasoko duzu etxean

(\*) Internetetik, inbideoa eta telefonoz

**NABARRA**  
Mmmm...

[www.nabarra.com](http://www.nabarra.com)

## Hizkuntza Trataera Bateratua testu-generoetan oinarrituta

euskara + ingelesa + gaztelania  
Iruñeko Hegoalde ikastola

Hegoalde ikastola aitzindari da testu-generoak lantzeko unitate didaktikoak sortzen, eta egun, hiru hizkuntzako programazio osoa testu-generoen bidez dute gorpuztua. Hizkuntzalaritzako hainbat adituk (Matilde Sainzek, Uri Ruizek, J. Dolzek kasu) ikastola honetako jardun praktikotik elikatzen dituzte euren lan teorikoak.

Egungo dema nagusia hiru hizkuntzako programazioa bateratzea da, hizkuntza bakoitzean egiten denak ikasleen gaitasun komunikatiboan benetako aurrerapausoak emateko balio dezan.

Lan honek Proiektu Berritzailen Saria jaso zuen iaz, Nafarroako Gobernuaren eskutik.



Euskarari, Gaztelanierari eta Ingelesez, programazioa bateratzea izan da Hegoalde ikastolaren ekarpena, batean ikasten dena ez dadin bestean alferrik errepikatu. Hiru hizkuntzetako ibilbidean osotasun bat bilatu dute, eta arrazoia hau da: ikasle eleanitza ez da hizkuntzak bata besteari gainean inkonexoki pilatzen dituen norbait. Ikasle eleanitzak gaitasun komunikatiboak sakontzen ditu, hizkuntza batean ikasia bestera transferitzeko ahalmenari esker.

Horrek esan nahi du hizkuntzen artean transferentziak egiteko antolaketa didaktiko egokia asmatu behar dela: lehenik, testu bakoitza zein hizkuntzatan eta noiz landu behar den erabaki behar da (euskaraz egiten dute gehienetan), eta gero, testu hori bera

gainerako hizkuntzetan nola eta noiz landu behar den.

Horretarako ikastolan hizkuntza mintegi bakarria osatu dute, eta irakasle denen ardura bihurtu da unitate didaktikoak sortzea, hiru hizkuntzetako testu-generoak berrordenatzea, sekuentziazioa egokia denetz aztertzea, hutsuneei erantzutea... Irakasle bakoitza bere praktikaren ikerle izatea behartu du Hizkuntza Trataera Bateratuaren proiektuak.

### Ikuspegi diskurtsiboa eta funtzionaltasuna

Hizkuntzak lantzerakoan ikuspegi gramatikalista, gradualista da nagusi, oraindik ere, hezkuntzan: esaldia hartzen da unitate gisa (ez egoera komunikatibo jakin bati lotutako testu osoa),





eta esaldi horren barnean modu soltean irakasten da deklinabidea eta aditzak, beti ere mailakatuta, segun eta irakasleari zer iruditzen zaion sinpleen eta zer konplexuen.

Hegoalde eta beste ikastola askorentzat, ordea, hizkuntzak lantzeko biderik koherenteena eta funtzionalena gelako jarduna testu-generoetan oinarritzea da. Ikuspegi diskurtsibotik, jarduera testual guztiek komunikatzeko asmoa eduki behar dute hasieratik eta horrela bizi behar du ikasleak, bere ahaleginen xehetasunak jakinez: zertarako den, norentzat, zer, noiz eta



beste. Esaterako, 5-6. mailakoek ipuin fantastikoak lantzen dituztenean, hasieratik badakite ipuin horiek benetan kontatuko dituztela, nori kontatuko dizkieten (lehenengo mailakoei), eta nola. Alegia, testu horrek funtzio komunikatibo erreal bat du, eta proiektua bukatzen da testu horren xedea burutzen denean. "Badakigu eskola beti simulazio bat dela -nabarmetzen

du Aitor Etxarte zuzendariak-, baina simulazio izanda ere saiatu behar dugu ahalik eta egoera komunikatibo benetakoenak sortzen". Eskolako egunerokotasunean ere badu isla: ikasleek eskaerarik egin behar dutenean, edo ikastetxe mailako proposamenik, hori modu egokian egitea eskatzen zaie (nori zuzendu, nola eta beste hainbat alderdi kontuan edukiaraziz).

## Proiektua pausoz pauso

- 1996az gero hasi ziren, M. Nemerovskyekin, testualitatea ikuspuntu diskurtsibotik lantzen. Testu tipologia bat hartu eta unitate didaktikoak sortzen zituzten. J. Dolz eta U. Ruizekin jarraitu zuten gero.
- 2002rako material mordoa zuten pilatuta, baina horri sekuentziario koherente bat eman behar zitzaion, kontuan hartuz hiru hizkuntzatan lantzen zena. Hemen abiatzen dute proiektua, M. Sainzen laguntzaz.
- Praktikari lotura emateko printzipio teorikoak adostu behar zituzten irakasle guztien artean hizkuntzen trataera bateratuari buruz. Vademecumak sortzen dituzte: adituei gaira zuzen doazen testuak eskatuz, ikuspegi arabera sailkatuz, eta irakasle denen eskura jarritz.
- Eztabaidaz, hezkuntza komunitateak zera definitzen du: hizkuntzen didaktikaren inguruan zertan diren ados, zer ardatz diren gauzatzen zailak, eta zer elementu diren zalantzakorrak.
- Mapa bat egiten dute, ordura arte zer testu mota, zein ziklotan eta zein hizkuntzatan landu dituzten ikusteko. Mapa egiteko Dolzen diskurtsoaren sailkapenean oinarritzen dira, baina hainbat kategoria egokituz.
- Hurrengo arazoa testuen arteko joskera aztertzea zen. Horretarako, testu bakoitzean zera aztertzen dute: generoa, testuingurua, koherentzia, eduki tematikoa, egitura, antolatzaileak, sintaxia eta ortografia. Hala, alderatzen dute testu bera nola lantzen den euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez, edota, nahiz testua euskaraz soilik landu, ea antolatzaile horiek beste hizkuntzatan ere lantzen diren, beste testu batzuen bidez.
- 2004-05 ikasturtetik, azterketa bertikala egiten dute: testu bakoitza hartu, eta ikusi HHko 1. mailatik LHko 6. mailara zer garapen duen, hiru hizkuntzatan. Hor ikusten ari dira zer testu mota falta den, edota zein errepikatzen den beste hizkuntzetan. Testuen sekuentziak birformulatzea ekarriko du.



### Irakasle denak sortzaile

Irakasle denak ikerle izatea eskatzen du proiektu honek: mintegian irakasle guztien artean adostu dituzte oinarri teorikoak. Horretarako adituen ikuspegi desberdinak bilduz vadecumak osatu eta, eztabaidaren bidez, zertan diren ados zehaztu dute. Testu-generoen sorkuntzan eta antolaketa-prozesu osoan ere, irakasle denak hartzen dute parte. Horregatik, ikastolan bi mintegi soilik dituzte: hizkuntzen mintegia eta matematikarena (ikastolako 32 irakasleak, erdi eta erdi banatzen dira). Izan ere, irakasgaiak adina mintegi edukiz gero, horietan adostutako aldaketak ikasgai guztietara eramatea ia ezinezkoa izaten dela ikusten zuten (ikasgai bakoitzak bere aldetik funtzionatzeko joera duelako).

Horizontaltasuna da, beraz, Hegoalde ikastolaren ezaugarri nagusia, “eta horrek alde positiboak ditu, asko -dio Aitorrek-, eta baita arazo batzuk ere. Gestioa oso horizontala egiteak esan nahi du dena eztabaidatzen dela, dena adostu egin behar dela, inork ez duela aginterik betoak edo bideak planteatzeko eta, noski, dena motelago doala. Baina bestetik, lana banatuago dago, irakasle guztiek hartzen dute parte, guztiongan barnatzen da egiten dugun hori, eta kultura profesional demokratiko bat da”. Beste eredu bat da aditu

batek talde txiki bat hartu, proiektu zehatz bat gauzatu, eta gero hori bera besteei aplikaraztea. “Planteamendu horrek azkarrago lortuko du programa bat ezartzea -onartu du Aitorrek-, seguru aski ekonomikoagoa izango da, baina baditu bere mugak: irakasle bat transmisore edo aplikatzaile bihurtzen bada, hor ez da kultura profesionalik sortzen. Hau ikastetxe mailan eramaten den proiektua da eta inportantea da, ze, ni hemendik desagertzen naizenean ere taldeak berdin jarraituko du martxan”.

### Adituak falta dira

Matilde Sainz oinarritzko pieza da proiektu honetan: oso galdera zehatzak bidaltzen dizkiote, eta gero, irakasle guztiak bilduta, haren iritzia entzun ondoren, elkarrekin eztabaidatzen dute. Praktikako arazoei erantzunak bilatzen laguntzeko, halako adituak gutxi omen dira Euskal Herrian. “Luze jardun dugu bila. Unibertsitate munduan honi buruz asko irakurri dutenak badira, baina beste inongo esperientziarik ez dute eta, beraz, halako lan baterako guretzat ez dira lagundu dezaketanak”. Errealitatean Nafarroan ikastetxeei aholkularitza eskaintzeko teknikaririk ez da. Hizkuntzen irakaskuntzarako Nafarroan dituzten erreferente legealek ere ez omen dute balio ikastetxeen



praktika orientatzeko: “Nafarroako Gobernuaren gutxieneko erreferentea kontrajarria da. EAEkoa ere ez da egokia, eta LOGSEtik sortu zena ere oso txarra zen”. Eurentzat erreferentea Genevako Kantoiak curriculumaren antolaketaz duen testu legala izan da. “Izugarrri trinkoa da. Testualitatean oinarrituta dago, eta esaten du testu-genero bakoitzean ikasleak adin bakoitzean zer egiteko gauza izan behar duen”.

Etorkizunera begira ere, sistema honek adituen idortea dakarrela dirudi, Aitorren ustez: “Tristeia da, baina tristeia, hain aparatu unibertsitario handiak edukitzea, eta ez edukitzea adituak alor honetan lanean.

### Ahokotasuna eta kale hizkera, puntu ahulak

Uri Ruizek proposatuta, zera egin zuten behin: jarri gela ertzean bideokamera, eta edozein saio grabatu. Gero transkribatu, eta ikusi zer-nolako elkarriketak sortzen diren gelan. Ondorioa, batez ere, sarritan hauxe gertatzen dela: kontraesana dagoela printzipioen eta metodologiaren artean. “Ahoz-kotasuna, funtzionaltasuna bultzatu nahi dugu lantzen ditugun testuetan, baina gero ikusten da irakasle onerabateko nagusitasuna dagoela gelan. Ahoz-kotasuna lantzeko metodologian zer aldatu asko dugu oraindik, baita testuak lantzerakoan ahokotasunari



eman behar zaion lekuan ere. Hori da gure defizita”.

Bada Hegoalde ikastolan eztabaida amaiezin bat ere: hizkera informala. Eskolak, instituzio formala izanik, irakatsi behar al ditu erregistro informala ere, haurrek kaletik ez dutenean erregistro horiek jasotzeko aukerarik? Hauek Aitorren hitzak: “Haserre han-

dia adierazteko edo, esplizituki irakatsi behar diegu, testu batean, biraoak esaten? Erantzuna ez dugu argi, ze batetik testuingurua erabat antinaturala da (irakaslea den figura formalak irakatsi behar die ‘kolega’ arteko hizkera), baina bestetik guk erakutsi ezean bada-kigu gaztelaniatik hartuko dutela”. Oraingoan, irteerako zirrikitu bat suma-

tu dute: txistea. Testu-genero moduan landuko dute, eta txistek badu oso berea den hizkera, erabat informala. Gelan hizkera informala lantzeko modu duin bat izan daiteke, besteak beste, txistearena. Beste inon ez dute aurkitu testu mota hori lantzen denik; ekarpena, beraz, ikastolaz haratago-koa ere izan daiteke. •

## Testu-generoak

- Hauek dira lantzen dituzten testu-generoak, hiru hizkuntzetan (lehenik euskaraz, gero gaztelaniaz zein ingelesez), ziklo desberdinetan (HH/LH etapetan).
- Adituek (J. Dolz, Uri Ruiz) material honetatik elikatzen dituzte euren lanak.

DISKURTSOA		TESTUA
NARRAZIOA	<b>Denbora-pasarako fikzioa</b>	IPUIN MIRESGARRIA: alegia, kondaira, mitoa TXISTEA BIOGRAFIA FIKZIOZKO ESKUTITZA NARRATZEKO KOMIKIA ANTZERKIA
KONTAKETA	<b>Bizi izandakoa gogoratzeko</b>	ESPERIENTZIEN KONTAKETA: bidaia, pasadizoa ESKUTITZA: aurkezpen / kontaketa BIOGRAFIA, AUTOBIOGRAFIA
	<b>Gertaeren berri emateko</b>	GERTAERA BERRIA ERREPORTAJEA
	<b>Iraganetik ikasteko</b> (ez dira urtero lantzen)	KRONIKA HISTORIKOA HORMA-IRUDI ILUSTRATUA BIOGRAFIA HISTORIKOA
	<b>Jokaera desberdinen artean eztabaidatzeko</b>	ARGUDIO ELKARRIZKETA EZTABAIDA ARAUTUA IRITZI TESTUA ESKAERA-ESKUTITZA: zuzendaria PUBLIZITATEA
AZALPENA	<b>Ezagutzaz jabetzeko</b>	HITZALDIA MAPA TXOSTEN ZIENTIFIKOA DEFINIZIOA GIDA TURISTIKOA HORMA-IRUDIA ESKEMA
JOKAERAK BIDERATU	<b>Ekimenak bultzatzeko</b>	KONTSIGNAK: arauak, eraikitze azalpenak, errezeta, erabiltzeko modua. PUBLIZITATEA
DESKRIBAPENA		DESKRIBAPEN ZIENTIFIKOA PERTSONEN DESKRIBAPENA: asmakizuna TOKIEN DESKRIBAPENA: asmakizuna



## Maila soziokulturala edota hizkuntzaren ezagutzarik eza?



**Ignasi VILA**

GIRONAKO UNIBERTSITATEKO  
HEZKUNTZA ETA PSIKOLOGIA  
FAKULTATEKO IRAKSLEA

Orain arte harrera herrian jaiotako ikasleekin nahiz atzerrian jaiotako ikasle etorkinekin egin diren ikerketa gehien arabera, ikasle etorkinek ikasle autoktonoek baino eskola porrot handiagoa dute. Hori zergatik ote den azaltzeko orduan, iritzi asko daude. Estatu frantziarreko "Haute Conseil à l'Integration"ek eginiko txostenen arabera, ikasle etorkinen eskola porrota ikasle horien familien egoera sozio-ekonomikoarekin eta kulturalarekin lotuta dago, egoera sozio-ekonomiko berean dauden frantziar ikasleen emaitza akademikoaren eta haien artean, ez baitago alderik. Appel (1988) ikerlariaren eta AEBn, Kanadan nahiz Europan egindako hainbat ikerketaren arabera, aldiz, ikasle etorki-



nen eskola porrota eskolako hizkuntzaren menperatze faltarekin zuzenean lotuta legoke.

Errealitatetik hurbilen dagoen azalpena, segur aski, bi hipotesi horiek batzen dituena da. Argi dago ikasle etorkinen emaitza akademikoetan eragin zuzena duela horien egoera sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta pertsonalak. Baina, aldi berean, eskolako hizkuntza ongi menperatzea –ikasgaiak eta gelan egiten diren ekintzak aise jarraitzeko– ezinbestean kontuan hartu beharreko beste eragile bat dugu. Artikulu honetan, hori horrela dela baieztatzen saiatuko da Vila jauna.

### Pertsona etorkinak: berdinak ala desberdinak?

#### Hezkuntza maila eta immigrazioa Estatu espainiarrean

Izquierdo-k (2002) eskaintzen dituen datuen arabera, 2002. urtean, Estatu espainiarreko etorkinen % 29k unibertsitateko ikasketak zituen eta Estatu espainiarreko biztanle autoktonoen artean % 22k. Bigarren Hezkuntzako ikasketei dagokienez, gauza bera: etorkinen % 48k Bigarren Hezkuntzako ikasketak burutuak ditu eta espainiarren artean % 46k. Ehuneko horrek oraindik alde handiagoa hartzen du Lehen Hezkuntza burutu dutenak eta analfabetismoaren kopuruak aztertzen baditugu. Hala, etorkinen % 23 talde horren barruan dago, eta Estatu espainiarreko autoktonoen artean, ordea, biztanleriaren % 32 dago. Beraz, datuek argi adierazten digute pertsona etorkinen hezkuntza maila altuagoa dela espainiarrena baino.

Arazoa, beraz, beste bat da: pertsona etorkinek duten ikasketa maila eta horiek Estatu espainiarrera heltzen direnean lortzen duten lana ez doaz lotuta. Adibidez, Ingeniaritza ikasketak burutu dituen etorkina etxegintzan lanean ari da, eta Zuzenbidea ikasi duen emakumezkoa umezain. Fenomeno hori ez da Estatu espainiarrean soilik gertatzen, Europako herrialde guztietan ikusten da joera bera.

### “Kulturalki integraezinak”

Batez ere islamiar erlijioa duten pertsonen buruz, usu entzun izan dugu, “kulturalki integraezinak” direla. Uste zabaldua da mundu musulmanetik datozen pertsonen beraien jatorrizko kultura, ohiturak eta hizkuntza(k) harrera lurraldean ere berdin mantentzen dituztela, harrera lurraldeko gizartean, kulturaren parte hartu gabe.

Datu enpirikoez, aldiz, bestelako errealitate bat erakusten digute. Esaterako, Tribalet-ek (1995) egindako ikerketen arabera, Frantzia bizi diren aljeriarren bigarren belaunaldien integrazio soziokulturala oso altua da: gizonen % 50 emakume frantsesekin ezkondu dago, beraien praktika erlijiosoak frantses autoktonoen mailakok dira eta % 50ek ama hizkuntzatzat frantsesa izateaz gain, % 30ek ez daki arabieraz edo berbereraz hitz egiten.

Ikerketa berean, datu guztiz argiagari bat agertzen da: Estatu frantziarrean bizi diren gazte aljeriarren % 40 langabezian dago; frantses autoktonoen artean langabezi tasa % 10ekoa da, ordea. Errealitate horrek, “anomía” (San Román, 1990) gisa ezaguna den fenomenora garamatza. Hau da, gazte horiek beraien familien jatorrizko arauak ez dituzte errespetatzen “zaharritzat” jotzen dituztelako, baina aldi berean, ezta autoktonoak ere, ez baitira onartuak sentitzen. Arazoa ez datza kulturaren, guztiz desberdina den beste zerbituetan baizik. Bigarren edo hiru-

garren aljeriar belaunaldi horiek, Estatu frantziarrean jaiok, heziak dira, eta beraien burua frantsesizat hartzea nahiko luketen arren, frantses autoktonoek beti etorkintzat hartzen dituzte, eta beraz, kulturalki ez dira identifikatzen ez familiaren jatorriarekin, ez eta frantziar kulturarekin.

### Hezkuntza maila, errendimendu akademikoa eta immigrazioa

Estatu frantziarreko “Haute Conseil à l’Intégration”eko hainbat txostenek argi adierazten duten modura, oso zaila da hezkuntza sisteman aurrera egitea ikasle etorkinen familia askok duten maila sozio-ekonomikoa izanda. Gainera, etorkinak gehienetan herri edota hirietako zonalde konkretu batzuetan pilatzen dira, maila sozio-ekonomiko bereko biztanle autoktonoekin batera, giro “homogeneo” bat sortuz. Giro horretako etorkinen nahiz autoktonoen seme-alabak ikastetxe konkretu batzuetan pilatzen dira, egunerokoan etxean bizi duten egoera sozio-ekonomikoa bide, haur horien hezkuntza itxaropenak minimoak baitira. Pentsa daitekeenez, errealitate horrek eragin zuzena du haur horien emaitza akademikoetan.

Hala ere, Aparicio eta Veredas-ek (2003), Navarro-k (2003) edota Vila-k (Vila, 2004; Vila eta beste, 2004) Estatu espainiarreko hainbat zonaldeetan egin dituzten ikerketen arabera, ez dago erlazio mimetikorik maila soziokulturalaren (baldintza sozialak, ekonomikoak eta familien hezkuntza maila) eta hezkuntza porrotaren nahiz arrakastaren artean. Argi dago bazterketa soziala bizi duten ikasleek, etorkinak izan edo ez, porrot akademikoa izateko aukera asko dutela; baina ikerlari horiek baieztatuko dute badela beste eragile bat ikasle etorkinen emaitza akademikoetan giltzarri dena: eskolako hizkuntzaren nahiz “eskola-hizkuntza”ren menderakuntza maila.

**Haur etorkinek irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako behar den “eskola-hizkuntza” mailarik ez dute. Eta eragile horrek eragin zuzena du haur etorkinen emaitza akademikoetan. Horri heldu beharra daukagu eskolan.**

### Hezkuntza eleanitza eta immigrazioa

Hainbat ikerketak adierazten dutenez, haur etorkinen gehiengoak ez ditu garatzen irakaskuntza-ikaskuntza aktibitateetan inplikaturako eskakizunak arrakastaz menderatzeko beharrezkoak diren gaitasun linguistiko-kognitiboak. Navarrok (2003) egindako ikerketan argi ikusten da hori. Badirudi *a priori* ama hizkuntzatzat eskolako hizkuntza duten haur etorkinek, hizkuntzari dagokionez behintzat, ez luketela arazorik izan behar. Baina Navaroren ikerketetan ikusiko da, haur etorkin horiek haur autoktonoek baino hizkuntza maila baxuagoa dutela; hau da, eskolako aktibitateetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako behar den “eskola-hizkuntza” mailarik ez dutela. Eragile horrek eragin zuzena du haur etorkinen emaitza akademikoetan. Haur autoktonoek, etxeko hizkuntza eta eskolako bat izan arren, eskolan erabiltzen den hizkuntza formala ikasteko zenbait urte behar izaten dute. Hala bada, haur etorkinek, nahiz eta eskolan erabiltzen den hizkuntza ama hizkuntza izan, urte eta erdi gutxienez behar dute ikasteko. Jauzia are handiagoa da, nola ez, ikasle etorkinaren ama hizkuntza ez badator bat eskolakoarekin.



Eskolak faktore hori ez baldin badu kontuan hartzen -hau da, nahiz eta haur etorkinek eskolako hizkuntzan hitz egin, haur horrek ez duela eskolako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua jarraitzeko beharrezko den hizkuntza mailarik-, haur horien emaitza akademikoetan eragin negatiboa izango du. Murgiltze linguistikoa denbora luzera begirako kontua da, emaitza onak lortu nahi baditugu behintzat. Egin diren ikerketen arabera, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza burutu ostean lortzen da hizkuntza formal maila parekatua izatea bai ama hizkuntzatzat eskolako hizkuntza duten haurrek eta bai ez dutenek. Beste modu batera esanda, ama hizkuntza katalana dutenek eta ez dutenek maila parekatua izatea Haur eta Lehen Hezkuntza amaitu ondoren. Besteak beste, arrazoi hori dela-eta, “zubi-gela” proposatzen duten hizkuntza politikek -hau da, urte batez eskolako hizkuntza ikasten egon (batez ere) ostean ohiko gelan sartzea ikaskide autoktonoekin-, porrot egin dute, urtebeteko epea gutxiegia baita, hizkuntza bat ikasteaz gain, “eskola-hizkuntza” maila egokia lortzeko.

## Beste zenbait faktore soziokultural

Ikasle etorkinen emaitza akademikoetan eragin negatiboa duten eta maila soziokulturalarekin lotuta dauden beste zenbait eragile ere badira. Honatx horietako batzuk:

- **Haur Hezkuntza:** maila sozio-ekonomiko baxua duten guraso etorkin askok, arrazoi anitz tarteko, seme-alabei eskolako lanak burutzen edota dituzten dudak argitzen ezin izaten diete lagundu. Horrez gain, guraso askok ez diote baliorik ematen Haur Hezkuntzan eskolatzeari. Hala, haur etorkin ugari Lehen Hezkuntzako 1. mailan joaten da eskolara lehen aldiz, aurretik etxean inolako oinarritzko hezkuntza irakaskuntzarik ukan gabe.

- **Etorkinen pilaketak eskola konkretuetan:** hainbat ikastetxetan, ikasle etorkinen eta maila sozio-ekonomiko baxua duten haur autoktonoen “pila-

keta artifizialak” egiten dira, “eskola-ghettoak” sortuz. Haur horien gurasoek nahiz irakasleek, kasu gehienetan behintzat, ez dute hezkuntza espektatiba alturik haur horiengan. Haur eta gazte horien gaitasun akademikoa autoktonoena bezalakoa bada ere, irakasleek beraiek ere ez badute beraien posibilitateetan sinesten, nola lortu emaitza akademiko onak?

- **Eskolatze berantiarra:** haur etorkin asko Lehen Hezkuntzan lehenengo eskolatzeari gain, ikasturtea jada hasia denean matrikulatzen dira.

## Ondorioak

Ikasle etorkinen eskola porrota beraien egoera sozio-ekonomiko eta kulturalarekin eta duten eskolako hizkuntzaren mailarekin lotuta dago. Bi eragile nagusi horiez gain, eragina izan dezakete emaitza akademikoetan aurretik dakarten eskolatzeari mailak, Haur Hezkuntzan aritu izanak edo ez, gurasoen hezkuntza mailak...

Hezkuntza sistemak, orain arte, ez du inolako arretarik jarri bazterketa eta marjinazio egoeretan dauden ikasle etorkinek emaitza akademiko positiboak lortzeko behar duten gaitasun linguistikoa eta kognitiboan lanketan; baina, orain, planteamendu berriak egiten hasi beharko du errealitate horri erantzun egoki bat eman nahi baldin badio, behintzat.

Horrez gain, hezkuntza sistemak “eskola-hizkuntza” edo “eskolako hizkuntza formalak” ikasle guztiek ongi menperatzea zilegi egin beharko du, baldin eta ikasleria osoaren emaitza akademiko positiboen alde apustu egin nahi badu. Hainbat ikerketak baieztatu baitute, egoera sozio-ekonomiko on eta hezkuntza espektatiba positiboetako ikasle atzerritarren emaitza akademikoetan ere, hizkuntza hori ez menderatzeak eragin akademiko negatiboa duela. •

## Bibliografia

- APARICIO, R.; VEREDAS, S.: *Red de menores extranjeros escolarizados en Andalucía*, Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones, Madril, 2003.

- APPLE, R.: “The language education of immigrant workers’ children in The Netherlands”, in Skutnabbkangast T.; Cummins J. (eds.): *Minority Education*, Clevedon: Multilingual Matters, 1988.

- IZQUIERDO, A.: “La educación errante”, in Zenbaiten artean: *La sociedad. Teoría e investigación empírica*, Centro de Investigaciones Sociales, Madril, 2002.

- NAVARRO, J. L.: *Inmigración en España y conocimiento de la lengua castellana. El caso de los escolares inmigrados en Aragón*, Argitaratu gabeko doktorego tesia, Universitat de Lleida, 2003.

- SAN ROMÁN, T.: *Gitanos de Madrid y Barcelona. Ensayos sobre aculturación y etnicidad*, Universitat Autònoma de Barcelona, Bellaterra (Bartzelona), 1990.

- TRIBALAT, M.: *Faire France. Une enquête sur les immigrés et leurs enfants*, La Découverte, Paris, 1995.


- VILA, I.: “Lenguas, cultura y diversidad humana: convivencia o conflicto”, in Zenbaiten artean: *III Congreso de Necesidades Educativas Específicas y Atención a la Diversidad de la Comunidad de Madrid en el Año Europeo de la Discapacidad. Perspectivas, Logros y Avances*, Madrilgo Erkidego Autonomoko prentsan, 2004.

- VILA, I. eta beste: *Lengua propia, lengua de la escuela y escolarización*, Comunicación al I Congreso sobre Etnografía y Educación, Talavera de la Reina (Toledo), 2004ko uztailak 12-14.





7 urtetik gorakoentzat.



38  
€

Prezioa

36  
€

Harpidedun prezioa

Hartu zure ardi erromesa  
eta ibilbidea jarraituz...  
segi Jakue bidean beeeera.



# ArdiBidez mahai jolasa

ESKAERAK: Tel. 943 371 545 • [www.argia.com](http://www.argia.com) • [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)





## AITOR ikastola

DONOSTIA

Gabonak gerturaten ari dira, eta horrekin batera ospakizunak prestatzeko unea ere bai. Ikastetxe guztietan egin ohi da zerbait opor-rrak hartu aurreko egunetan: Olentzero, jaiotza, gabon kantak...

Donostiako Aitor ikastolan bost egunetan zehar luzatzen dute sorpresaz beteriko ospakizuna. Alde batetik gabonetako pertsonaiak ikusten dituzte haurrek, eta bestetik Argitxo. Hau da, egiten dituzten ekintzak ikasleak motibatuzko eta euskaraz egin dezaten bultzatzeko baliatzen dituzte.

Ikasle batek iaz egin zutena kontatzen digu hemen. Aurten ere irrikitan daude olerkiak ikasteko, abesten hasteko, Txominen bisita jasotzeko, gutunak idazteko...

## Aitor-enea

### Gabonak aurreko egunak prestatzen

Gaur goizean ikastolara joateko jaiki naiz. Aitor izena du nire ikastolak eta Donostiako Egia auzoan dago.

Laster Gabonak dira eta urtero bezala, aurten ere, zerbait berezia egingo dugu oporrrak hartu aurretik. Andereñoak esan digu, gaurtik aurrera olerki bat ondo ikasten badugu, jangelara joango garela zerbait berezia ikustera ondorengo bost egunetan.

Jangelan toki asko dago eta bertan antzerkiak egiteko eszenatokia dugu.

#### Gaur abenduak 19 da

Ikastolan gauden guztiak eszenatokia begira elkartu gara (Haur Hezkuntzako maila guztiak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak). Gortinak itxita daude eta isilik egoteko eskatu digute. Ahoa itxi dugu eta gortinak zabaldu direnean hara non gure aurrean etxe bat ikusi dugun. **Aitor-enea** du izena. Ate bat eta lau leiho ditu. Bakoitzean zerbait bat, abenduak 19, 20, 21 eta 22 jartzen du eta atean abenduak 23. Itxita daude guztiak.

Zer egun den galdetu digute. Handiek erantzun dute. Leiho hori irekitzeko olerkia esan behar dugula esan digute, bestela ezin dela ireki. Oso ondo ikasita genuen olerkia guztiok batera esan dugu:

“Gabonak gabon  
denontzako zorion!  
Olentzero salda bero,  
zer duzu guretzat gero?”

Abenduak 19 jartzen duen leihatila ireki egin da eta barruan Argitxo panpi-

natxoa gu agurtzen. Eskutitza ekarri digu eta bertan zera esaten du:

*“Iepa lagunok, Argitxo naiz! ‘Harri murri zapero bero-bero-bero haurrak egin euskaraz...’ kantaren doinua entzuten dut oso sarri. Zerbait egunetan goizetan eta arratsaldetan, gainera. Eta ez dakizue zein ongi iristen den kantaren oihartzuna haize handia dabilenean!*

*Dena den, iluntzetan ez dut entzuten. Zer esan nahi du, ez duzuela etxean kantatzen? Ea bada hurrengorako ama, aita eta zuen anaia-arrebei ere irakasten diezuen kanta eta ni pozak zoritzen jarriko naiz.*

*Gabon egunetako atarian gaudez gero, eta zuek Olentzerori zein opari eskatu pentsatzen egongo zarete-nez, Olentzerori idazteko eskutitzak bidali dizkizuet. Paper kolore polita, ezta? Gustatzen al zaizkizue?*

*Eskutitz hauek etxera eramanez eta aitatxo edo amatxorekin Olentzerori eskatu nahi diozuen opariaz hitz egin ondoren, idatz ezazue eskutitza eta bidali diezazue helbide honetara:*

*Olentzero jauna  
Basomendi z/g  
Euskal Herria*

*Beno, agurtzeko garaia iritsi zaigu bada. Agur eta jan iogur! Musu handi bana,  
Argitxo”*

“Harri murri zapero” Argitxoren kanta abestuz bukatu dugu gaurko saioa.

## 2. eguna da, abenduak 20

Atzo bezala, gaur ere galdetu digute: “gaur zer egun da?”. Eta ondoren: “zenbat egun falta dira Txomin Olentzeroren laguntzailea etortzeko?”.

Nik Txomin oraindik ez dut ezagutzen, eta esan digute urtero etortzen dela azken egunean.

Berriro ere atzokoa errepikatu da: “Zer esan behar duzue leihatila irekitzeko?” –dio andereñoak, eta guk:

“Gabonak gabon,  
denontzako zorion!  
Olentzero salda bero,  
zer duzu guretzat gero?”

Leihatila ireki, eta barruan, “bizar-dun bat gitarra jotzen” azaldu da. “Nork daki gure artean gitarra jotzen?”, galde-tu digute. “Danik” (musikako irakaslea) –oihukatu dugu.

Hor azaldu da bere gitarra eskutan. Ondoren, gabon kantak abestu ditugu denok elkarrekin.

## 3. eguna da, abenduak 21

Berriro errepikatu dugu aurreko egunetakoa eta leihatila ireki dutenean “Mari Domingi eta Olentzeroren ipuina” ikusi ditut. Irakurri egin digute. Niri asko gustatu zait eta bat-batean, hara non benetako Mari Domingi azaldu den:

“- Ezagutzen al nauzue? –esan digu. “Ni Mari Domingi naiz, Olentzeroren laguna. Eta ipuinean entzun duzuen bezala, badakizue ni haren laguntzailea ere banaizela”.

Badakit jatorrak zaretela eta asko saiatzen zaretela euskaraz egiten ere. Argitxo gure laguna ere bada eta hark zuei buruzko kontu asko esaten dizkigu.

Laster Olentzero etorriko dela badakizue, ezta? Honezkero, eskutitza idatzia izango duzue eta agian bidalia ere bai. Hala ez bada, ekin iezaiozue idazteari Txomin, Olentzeroren laguntzailea, Egia auzoko bidean baita, eta Aitor ikastolara berehalaxe iritsiko da.



Tira! Beste ikastola batera joateko ordua iritsi zait. Baina, batek daki, orain arte bezain jator jarraitzen baduzue, agian **sorpresatxoren** bat izango duzue. Beno, oso lanpetauta gabiltza Olentzero eta ni. Beraz, banoa. Ondo izan!”.

**Abestuz** agurtu zaigu: “Horra, horra gure Olentzero...”.

## 4. eguna, abenduak 22

Leihatila irekitzeko olerkia errepikatu dugu aurreko egunetan bezala. Eta, zer dago gaur? Oharra ikusi dugu eta garbi entzun dugu irakurtzen ari direna: “**Sorpresa**”. Eta, gezi baten ikurra.

Hori ote Mari Domingik atzo esandakoa? “Geziari jarraituko diogu!”, esan du andereñoak, eta... gaztainak topatu ditugu denontzat. A zer nolako hamaketakoa egingo dugun!

## Abenduak 23: urduri samar gaude

Gelan oso gustuko lana egin dugu gaur: Olentzerori eskutitza idatzi diogu gelarako zerbait ekartzeko eskatuz... andereñoak esan digun bezala, gaur ez da irekitzeko leihatilarik gelditzen. Atea zabaltzea soilik falta da. Olerkia aurreko egunetan baino indar handiagoz esan dugu. Atea ireki denean zaku bat ikusi dugu. Hutsik dago. Norena ote da? Bat-batean, Olentzero jantzen den moduko gizon bat azaldu da jangelan: txapela buruan, abarkak oinetan...

**Txomin** omen da.

“- Egunon! –esan digu.

Ba al dakizue nor naizen? Ni Olentzeroren laguntzailea naiz. Olentzero oso lanpetuta dabil eta ni bidali nau

zuekin egotera. Ba al dakizue zer-nolako lana egiten duen Olentzerok? Mendian bizi da baserri batean. Behiak, oiloak, untxiak... ditu. Eta baratzean ere lan egiten du. Ikatza egiten du gero sutondoan bero-bero egoteko. Ba al duzue Olentzero iristeko gogorik? Laster etorriko da. Aurten ere Plaza Handira jaitsiko da menditik. Han egongo zaretela espero dut ongi etorria emateko.

Zuek ba al dakizue kantatzen? Zer, kantatuko dugu bada elkarrekin? ..... Oso ondo, oso ondo. Txintxoak izan al zarete?

Opari bana ekarriko dizue Olentzerok orduan. Baina eskutitzi idatzi al diozue? Etorri, etorri ba... eta zaku honetan sartuko ditut denak Olentzerori emateko. Txoritxo batek esan dit euskaraz behar bezala eta nonahi hitz egiten duzuela. Hala al da? Olentzero asko poztuko da hori jakitean.

Beno, agurtzeko garaia heldu zaigu. Oraindik ere lanean jarraitu behar dut eskutitz gehiago jasotzen. Hurrengora arte bada, jator jarraitu. Agur!”.

Zakua beteta eraman du Txominek eta ni poz-pozik oheratuko naiz bihar Olentzero Plaza Handinikusiko dudala amestuz eta opariak bidean daudela jakinda. •





## Zer diozu LOE lege proposamenak partaidetzari ematen dion trataeraz



**Julen ETXEBERRIA**

SORTZEN-IKASBATUAZeko koordinatzailea

ziotik bereizirik tratatu. Hau da, zer partaidetza mota lortu genezake eta zertarako, erabaki gehienak kanpotik etortzen zaizkigun hezkuntza eredu batean?

Lege proposamen honek autonomia hitza ahotan behin eta berriz dabilen arren, ikastetxe bakoitza erarik egokienean moldatu eta antolatzeko posibilitaterik ez zaigu eskaintzen: zuzendaritzak profesionalizatu nahi dira eta administrazioaren zerbitzura jarri, eta ikastetxe bakoitzak dituen berezitasunak kontuan hartuko dituen berezko

proiektuak aurrera eramateko zailtasunak ikusten dira.


Administrazioak partaidetza eta autonomia mota hori bultzatu behar luke (ez kontrol hutsa egin) eta LOE lege proiektu honetan irakurri dugunez, ez da inondik inora horrelakorik bermatzen. Ezin baikorrak izan: LOCE eta LOEk gai honi buruz ahalbidetzen duenak LOGSE mina sortu baitigu, jakinik lege hartan proposatzen zitzaigun partaidetza murrizta iruditu zitzaigula garai hartan. •

Gure elkartearen iritziz, benetako partaidetza bultzatzea ezinbestekoa da gure ikastetxeak dituen arazoei irtenbidea emateko, baina benetakoa diogu, hots, ikasle, langile (irakasle eta zerbitzuetakoak) eta gurasoak elkarlanean, era orekatu batean, aritzea erraztuko duena; are gehiago, baita eskolaz kanpo dauden taldeen partaidetza bultzatuko duena ere (aisialdia, kulturetxeak, gizarte zerbitzuak...).

Hala ere, puntu horren inguruan burutu genuen azterketaren ondorioz, zera nabarmendu nahi genuke: ezin dugula partaidetza autonomia defini-



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

abendua

berriak

# GOIESKOLAren heziketaren aldeko manifestua

**GOIESKOLAK (Debagoiene-ko Euskal Eskola Publikoak)** ateratako manifestuaren atal bat da gidan datorrena.

Manifestuak gizarte aldaketak aztertzen ditu lehenik, eta ondoren definitzen du zer heziketa nahi duen (orri honetan biltzen dena) eta zer konpromiso hartzen dituzten (laburpena, ondoko koadroan).

**Manifestua osorik**, Interneten:

[www.goieskola.net](http://www.goieskola.net)

## Nahi dugun heziketa, halakoa behar dugulako

Egia da eskola ere aldatu dela: informazioaren teknologiak bat-batean sartu dira; giza eskubideen kultura hedatu da, zeinak ikasleak zuzenbideko subjektu gisa hartzen dituen; gehienek onartzen dituzten gizarte balioak dagoeneko hezkuntzaren diskurtsoaren osagai dira, besteak beste, askatasuna, autonomia pertsonala edo gizakien arteko berdintasuna. Filosofia berri horrek, ordea, ez ditu gure artean zalan-tzan jarri sistema zaharraren pentsamenduaren oinarriak: irakaslearen gehiegizko boterea eta jakintzaren igorle rola; eskola-bizitza kontrolatzeko eta homogeneizatzeko helburua; jakintza alorrek zatikatzea; arazoia eta emozioa bereiztea eta abar. Horiek dira gaurko eskolari eskema zaharrak gainditzten uzten ez dizkioten aingura zaharrak.

Eskolak aldaketa sakonagoa behar du baldin eta etengabe aldatzen ari den gizarte batean eragina izan nahi badu, gizartearen osatzen dutenen zati handi baten iragarritako gizarte bazterketa-aren aurka egin nahi badu. Baina, ez ote gara gizartearen aldaketen atzetik ibiltzera kondenatuak egongo? Egiten duguna egiten dugula, ez ote gara beti berandu iritsiko?

Ez. Arazoa ez baita azkarrago ibiltzea, egiten denaren ikuspuntua aldatzea baizik, eskolak berak duen funtzioari buruz zein ikuspuntu hartzen duen. Begirada aldatu, eta gure ikasleak hezi, jakintza eta euren burua eraiki dezaten, subjektu autonomo eta kritikoak izan daitezen, elkarlanerakoak eta solidarioak. Eurak parte direneko gizarte konplexu eta ziurgabetik hezi, etengabeko aldaketek eskatzen dituzten gizarte konplexu eta ziurgaberako.

Ez gara hutsetik abiatuko, hor baitago urteetan eskola barruan bertan kolektibo askok egin duten lana, gizartearekin bat etorriko den eskola bat eraikitzeko ahaleginean konprometitu, arazo errealei lotuagoa, gizateria garen aldetik aurre egin behariko diegun arazo errealei lotuagoa. Irakasleria osatzen duten gehienek, euren duten onena eman dute profesional mailan euren burua eratu nahian, betetzen duten hezitzaile lanaren bidez ikasleak baloratuak senti daitezten eta kalitatezko irakaskuntzaren protagonista izan daitezten. Horrexegatik, irakaskuntzako talde konprometitu eta balio handikoa dugunez, ezin ditugu euren ahaleginak bertan behera utzi, ezin dugu noraezak, zailtasunak edo menpekotasunak euren ahalegin eta ilusioak zapatu ditzaten utzi.

Heziketak badu dimentsio indibidual bat eta beste bat soziala, bata bestea bezain garrantzi handikoa; horregatik ezinbestekoa da GOIESKOLAKo eragileekin, zein inguru hurbileko eragileekin, elkarlanean aritzea. Izan ere, eskola berri bat, eskola osatzen duten GUZTION artean eraiki nahi baitugu, eta guztion arteko komunikazioa izango da gure laguntzarik onena jardun horretarako. Beste errealitate eta esperientzia batzuk izanagatik, guk bezala bestelako eskola eta mundu hobe bat eraiki nahi duten pertsonekin ere elkar-lana landu behar dugu.

## Goieskolaren konpromisoa

**1- Edonolako bazterketa sozialaren aurkako konpromisoa:** gizarteratzeko heziketa plan-teamenduak egitea eta adierazpen propioen eta aniztasunaren balioa onartzeko kolektiboak eraikitzea.

### Zehatzago:

Lankidetzan oinarritutako irakasbideak sortzeko konpromisoa hartu dugu, lehiaren ordezkomunikazioa eta elkarlana hobetsiko dituen.

Ebaluazio kontzeptu berria sortzeko konpromisoa hartu dugu, autotzagutzarako, autonomia pertsonala areagotzeko eta irakaskuntza lana hobetzeko balioa duena.

Prestakuntza planak diseinatu eta garatzeko konpromisoa hartu dugu, gure irakaskuntza lana hobetzeko eta lan horren gaineko hausnarketa kolektiboa egiten lagundu-ko dituztenak.

**2- Elkarlanerako konpromisoa,** hau baita gure heziketa errealitatea aldatuko duen motorea: GOIESKOLA eraikitzen jarraitzearen aldeko apustua egin dugu, hausnarketarako, esperientziak elkarrekin trukatzeko eta proiektuak garatzeko kolektibo gisa.

**3- Elkarbizitza hobetzearen aldeko konpromisoa,** unean-unean esku hartuz, eskola jazarpen GEHIAGORIK gerta EZ dadin.





[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)



Berriak . Materialen salmenta . Udako  
topaketak . Kontaktuak . Harpidetza .

# Hizkuntz ereduak eta LOE izan dira hizpide SAREAN elkartearen XIX. Topaketetan

**SAREAN** Elkarteak **XIX. Topaketak** burutu zituen azaroaren 17tik 19ra Eibarren. Jardunaldiotan 100 pertsona inguruk hartu zuen parte. Nagusiki zuzendaritza esparruko kideak bildu ziren, baina baita guraso, sindikatu, unibertsitateko irakasle eta Hezkuntza administrazioiko ordezkariak ere.

Landu zituzten gai nagusiak hizkuntz ereduaren afera eta LOE lege proposamena izan ziren.

Hizkuntz ereduaren sistema berri egin behar da eta horretan planteamendu pedagogikoez izan behar dute ardatz, ez politikoez

Sareanen ustez, euskalduntze esparruan pauso berriak emateko egoera onean dago sare publikoa. Hala ere, *garrantzitsutzat jotzen da edozein urrats eman aurretik ikerketa sakona egitea*, orain arteko esperientziak zer ekarri digun eta hutsuneak zertan dauden ondo zehazteko.

Hausnarketa honi politizatuegia izateko arriskua ere ikusten zaio. Beste edozein aurretik, beharrezkoa da helburu orokorra argi edukitzea, zer lortu nahi den alegia; horretaraino justifikatzen da esku-hartze nagusiki politikoa. Baina, hortik aurrera irizpide pedagogikoetan oinarrituta zehaztu beharko lirake eman beharreko urratsak eta jorratu beharreko ibilbideak. Beste era batera esanda, ereduaren berriztatzeari kutsu politikoa ahalik eta gehien kendu behar zaio, garrantzi nagusia ikuspegi pedagogikoari aitortuz.

Zehaztasun didaktikoetan sartuz, beharrezkoa ikusten da hizkuntzen arloan lortu beharreko gutxienezko gaitasunen maila, edukien banaketa eta ebaluaketa irizpideak ondo zehaztu behar direla etapa bakoitzerako eta baita zikloz ziklo ere. Erreferentzia garbiak

jarri behar dira, helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen aldetik ikasle eta ikas-tetxe guztientzat.

Gainera, etorkizunean eman beharreko urrats metodologikoak hizkuntzen trataera integratuaren praktika errotzera zuzenduak izan beharko lukete. Ildo horretatik joan beharko du, arlo honi dagokionez, irakasleen etengabeko prestakuntzak, irakasleen hizkuntza mailaren sakontzearekin batera.

Azkenik, beharrezkoa ikusten da gogoratzea euskalduntzearen erronka ez dela ikastetxeena bakarrik. Gizarte eragile, udalerrri eta abarren beharra dauka, hizkuntza ez baita akademikoa soilik eta esparru ez formaletako bizitasuna ezinbestekoa du. Ildo horretatik, familiei ere dei egiten diegu seme-alabekiko euskararen aldeko jarrera baikorrek adieraz ditzaten, eta ahal den heinean, erabilpena sustatu.

**Ausardi falta antzematen da erlijioaren irakaskuntzaren arazoari aurre egiteko**

Jardunaldien amaieran, Madrilgo Hezkuntza Ministerioko Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Hezkuntza Berriztatzearen Zuzendari Orokorra izan zen hizlari, Jose Luis Perez Iriarte. Hitzaldian LOE lege proposamenak dakartzan alderdi garrantzitsuenak azaldu zituen.

LOE baino positiboagoa ikusten

**Sareanen ustez, ereduaren berriztatzeari kutsu politikoa ahalik eta gehien kendu behar zaio, garrantzi nagusia ikuspegi pedagogikoari aitortuz.**

bada ere, lege asmo berriak jardunaldietako parte-hartzaileen artean kritika batzuk jaso zituen, nagusiena erlijioaren inguruan. SAREANen jarrera une honetan arazo honi dagokionez, hiru puntutan laburtzen da:

1. Positiboki baloratzen du erlijioaren irakaskuntza ez konfesionala, betiere kritikotasuna, justizia, elkartasuna eta askatasuna gisako oinarritzko giza balioen lanketarekin lotuta.

2. Desadostasuna adierazten dio edozein erlijioaren irakaskuntza konfesionala ikastetxeetako derrigorrezko curriculumean txertatzen jarraitzeari.

3. Oinarri horiek batera ezin ikusten ditu 1979an Espainiako Gobernuak Eliza Katolikoarekin sinatutako "Concordato" arekin. Horregatik, Perez Iriarte jaunari ausardiaz jokatzeko eskatu zitzaion lotura horiek gainditu eta irakaskuntza laikorantz urratsak emateko.

**Eskola Batzordearen alde**

Sareanek egoki irizten dio LOEen proposatzen den Eskolatze Batzordearen eraketa asmoari. Izan ere, diru publiko hornitutako ikastetxeek ez lukete inola ere ikasleak aukeratzeko biderik eduki behar. Justiziazkoa da ikastetxe guztietan, publiko edo itunpeko pribatu, prozedura gardenak izatea alde batetik, eta bestetik indarrean dagoen arautegia itunpeko ikastetxeek ere publikoek bezalaxe betetzea (epeak, onarpen-baremazioak, eskolatzearen doakotasuna...). Batzorde horiek hori bermatu beharko lukete. Edonola ere, ez da ahaztu behar LOEa lege markoa izango dela eta, guztia egokitzeko lege sorta garatzea erkidegoko gobernuari dagokiola, gure EAren, Eusko Jaurritzairen Hezkuntza Sailari. Beraz, eskakizun hori berari ere luzatu dio Sareanek.

## Parte-hartze eta interes handia emakumeen inguruko Sare 2005 jardunaldietan

Parte-hartze handia lortu zuen Emakunde antolatutako Sare Jardunaldien III edizioak: 200 pertsonak hartu zuten parte, Euskal Herri bertako eta kanpotik etorritako adituak bilduz, eta hitzaldien ostean hitza foroari zabaltzean eztabaida mamitsuak eman ziren. Aurtengo Sare Jardunaldiek honako izenburua zuten: **Egungo neskak, etorkizuneko emakumeak**, eta azaroaren 8 eta 9an burutu ziren, Donostiako Kursaal.

### Kanpoko adituen hausnarketak biltzeko foroa

Egitarauak luxuzko adituen presentzia eskaini du. Espainiar zein frantziar estatutik eta Londrestik etorritako adituek euren ekarpena utzi dute foro honetan (aditu gehienak unibertsitateko edota ikastetxeetako irakasleak ziren).

Jardunaldiei hasiera Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eman zien, mezu honekin: "Gizartea aurreratua izango bada, gizona eta emakumeen berdintasuna egon beharko du. Horixe izango da XXI. mendeko eztabaida eta erronka nagusia". Txaro Arteagak jakinarazi zuenez, datorren urtean ere izango da Sare Jardunaldietan parte hartzeko aukerarik. Informazio gehiago nahi duenak, [www.emakunde.es](http://www.emakunde.es) web orriraja dezake.



## Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioak tratamendu fiskal eta ondarezko desberdina eskatzen du

Kooperatiba moduan duten berezitasuna onar diezaieten eskatzen dute Euskadiko irakaskuntzako kooperatibek eta, horren arabera, tratamendu fiskal eta ondarezko desberdina eman behar zaiela diote.

Eskaria Imanol Igeregin egin zuen publikoki (Federazioko lehendakaria denak), Bilboko Euskalduna Jauregian ospatu zuten I Kongresuan. Bertan bildu ziren EAEko hezkuntza administrazioiko goi karguak, alderdi politiko zein sindikatu etako hezkuntza arduranak eta gizarte erakundeak. Euskal kooperatiben munduko arduradun nagusiak ere han ziren.

Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioak zera proposatzen du: hezkuntza zerbitzu publikoa bere helburuen eta ezaugarrien arabera definitzea, bazter batera utziz titularitateari

buruzko eztabaida antzuak. Federazio honek uste du Hezkuntza Zerbitzu Publiko bat sortu behar dela, non diru publikoz eutsitako zentro guztiek, zer titularitate duten erreparatu gabe, eskubide eta betebeharrak izango dituzten, hezkuntza sistemaren programazio orokor bati lotuta.

Hezkuntzan baliabide gehiago inbertitzea eskatzen dute horretarako: gure BPGren % 6 gutxienez, sei urteren bururako. Horrez gain, eskola postu batek eta finantziario moduluak zer kostu erreal duen kuantifikatzea ere eskatzen dute, horrela zentroi kalitatezko hezkuntza bermatzeko beharrezkoa duten finantziarioa eskaintzeko. Gainera, gestioaren gardentasuna eta kontrola gizartearen eskura izatea eskatzen dute, zentroen titularitatea zernahi dela ere.



*24 pedagogoren ekarpen garrantzitsuenak modu laburrean eta ulergarrian jarriak.*

Durango azokan salgai



**156**  
orrialdeko  
liburua

**12**  
eurotan

Harpideek  
**DOAN**

Decroly, Montessori, Ferrer i Guàrdia, Neill, Reich, Rogers, Milani, Freinet, Makarenko, Sutchodolski, Illitx, Holt, Freire, Vigotski, Piaget, Kohlberg, Foucault, Malaguzzi, Hamilton, Gardner, Elliott, Turiel, Goleman, Novak.

# Ikastolak IKTetan egiten ari diren bidea aurkeztu zuten jendaurrean

## Egitasmo aitzindari bat jarriko dute laster abian: ikasgelarako propio prestatutako ordenagailua

200 partaidetik gora bildu ziren Zamudioko Teknologia Elkartegian burututako ekitaldian: ikastoletako ordezkariak, gurasoak, irakasleak eta IKT dinamizatzaileak ziren gehienak. Lehenik aditzera eman zuten ikastolek Informazio eta Komunikazio Teknologia berrien arloan egin duten lana. Ondoren, eskuartean duten proiektu kuttuna aurkeztu zuten: NAMS, Norberaren Aprendizaia eta Memoria lantzeko sistema.

2001-2002 ikasturtean jarri zuten martxan ikastolek IKT plana: hamar ikastolatan hasi ziren, proiektu pilotu batekin. Teknologia berrien erabilera bultzatzeko dinamizatzaileak jarri zituzten propio, baita gailuen mantentze teknikoaz arduratzen ziren langileak ere. Hainbat langile liberatu zituzten, beraz, IKTei zuzenean heltzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin. Orduetik ikastola askotara zabaldu dira IKTak baina, ez nahi bezala ere, Josune Gerekak adierazi zuenez (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko IKT alorreko arduraduna da berau): "Orain hasi diren ikastolek beren poltsikotik ordaindu behar izaten di-

tuzte dinamizatzailea eta mantentze teknikorako langilea izateak dakartzan gastuak". Figura horiek errebindikatu, eta lanpostu horiei eusteko laguntza eskatu zuten Ikastolen Federazioko ordezkariak.

### Egitasmo aitzindari bat aurki ikasgelatan: NAMS

Norberaren Apendizaia eta Memoria lantzeko Sistema da NAMS, etorkizun hurbilera abian jarri nahi duten egitasmorik kuttunena. Ikasle bakoitzarentzat ikasgelan ordenagailu bat izatea lortu nahi dute horretarako. Baina ez da ohiko ordenagailua izango, tresna txikiagoa izango omen da, eta ikasleek gelan izaten dituzten premiei erantzuteko propio prestatutakoa. Orain prototipoa lantzen ari dira. Proiektu honetan bidelagun dituzte Kataluniako hainbat aditu, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatea eta hainbat enpresa eta ekimen eragile.

Teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideei esker, hezkuntza komunitatearengana errazago iritsi ahal izango dutela uste dute Ikastolen Konfederazioko kideek, ikas-irakas prozesua ikasgelaz haratago zabalduz. Gurasoak, esaterako, errotuago sentituko omen dira beren seme-alaben ikasketa prozesuan, laster notak Internet bidez ere lortu ahal izango baitituzte, baita etxeko lanak ere.



# argitalpenak



**Artur erregearen heriotza**  
Juan Kruz Igerabide  
EREIN

Artur erregearen eta Mahai Biribileko zaldunen istorioek, Erdi Aroan Europa osoa utzi zuten txunditurik. Geoffrey de Monmouth izan zen Arturrezartu zen lehen historiagile garrantzitsua. Kontakizunak ahoz aho eta idatziz hedatu ziren, aldaera askorekin. Tartean, *Artur erregearen heriotza*, egile ezezaguneko liburua. Juan Kruz Igerabidek dakargu euskaraz •



**Ekonomia eta enpresa antolamendua**  
Unai Mtz. Lizardui eta Alain Urizar  
GAIK

Batxilergoko 2. mailari zuzendutako ikasliburua da, eta ariketa liburu bat du lagun. Enpresa sistema logiko, koherente eta antolatu gisa ulertzea eta bere barne-funtzioak dituen hamaika alderdiri buruz hausnartzea du helburu. Enpresa motak, egitura ekonomikoa, helburuak eta estrategiak, lan zuzenbidearen eta zergen legedia, funtzioak eta marketinga azaltzen ditu •




**Gure mundu txikitik**  
Eskola Txikiak  
ELKAR

2006. urtean Eskola Txikiak Igel-don duten festa dela eta, puntua jarri diete euskal idazle hauei: Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide, Arantxa Iturbe, J.M. Olaizola "Txiliku" eta Joxan Ormazabali. Baita "Mattin" marrazkilaria ere. Eskatu diete herri txikien talaiatik, "Gure mundu txikitik", begiratzeko munduari. Poema, ipuin eta marrazkita jarri dute euren ikuspegia •



**Behinola, 11. zenbakia**  
GALTZAGORRI  
ELKARTEA

Beldurra eta Literatura gaia lantzen du, bereziki, aldizkariaren azken aleak. Bertan aurkituko dituzu, besteak beste, Agustín Fernández Paz-en elkarrizketa, Rai Buenoren ipuina, Juan Carlos Alonso-ren artikulua beldurrezko ipuinek haurren duten eraginari buruz, eta Galtzagorri elkarteak beldurraren inguruan duen erakusketaren berri •



**Numenak -Aita**  
Unai Busturia  
SAURE

Gaztetxoei zuzendutako komikia da. Egungo neska bat da protagonista, baina merkatuan topatu duen antzinarako orrazi batek, euskal mitologiako garaira eramango du. Marrazkiek dotore ilustratzen dute gaurko estetika eta kondaira giroa. Komikiaren amaieran, eranskina dator: pertsonaiak nola sortzen diren, eta arkatza eta kolorea nola erabiltzen diren azalduz •



**Ikasi eta irauli. Euskal ikasle mugimenduen historia**  
Mikel Zabala, Sabino Ormazabal  
eta Igor Arroyo  
TXALAPARTA

Euskal Herriko hezkuntzaren, ikasleriaren eta ikasle mugimenduen historia azaltzen du. Eta hainbat ikasle belaunaldik izan dituzten ametsen eta egintzen berri ematen du. Lekukotza liburu ere bada, garaiko ikasle mugimenduan protagonista izan diren asko eta askoren hitzak jasotzen ditu eta •



# ... goza nazazu gehiago

## Kidetze planak adin diferenteetako ikasleen artean



**Helena Baraibar eta  
Kristina Boan**

Ikastolen Elkarte

Edozein hizkuntz normalkuntza planek hizkuntz portaeran eragitea lehenetsi behar du. Eskolako esparrura etorrita eta gure ikasleen hizkuntz portaeran aldaketarik eman dadin, garbi dago ez dugula eragingo "EGIZUE EUSKARAZI!" gisako mezuak bideratuta.

Honela bada, gure jarduna eragin-garria izan dadin bestelako estrategiaz baliatu behar dugu. Eskolako normalkuntza planetan ikasleen zuzeneko partaidetza bilatu behar dugu, batez ere Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Bigarren Hezkuntzan. Hizkuntz normalkuntzarako teknikarien eta ikasleen arteko elkar-lanak ahalbidetuko du ikasleek protagonismoa jokatzeko eta normalkuntzan erantzule sentitzea. Izan ere, interakzio horren bidetik ikaslearen heziketa orokorrean

eragiteaz gainera, bere hizkuntz portaeran eragitera ere irits baikintezke.

Beraz, edozein normalkuntza planen egitekoa adin horietako ikasleen partaidetza bultzatuko duen zenbait antolaketa eredu proposatzea izango da. Adin helduagoko eta gazteagoko ikasleen arteko kidetze plana, esaterako, helburu horri ezin hobeto erantzuten dion antolaketa duzue. Kidetze plangintza horien gakoa ikasle batzuk eragile eta besteak hartzaile bihurtzean datza. Ikasle eragileak, gogoko duen ekintzaren batean murgilduta protagonista dela sentitu behar du. Bestetik, hartzaile denak ere proposatutako ekintzarekin motibatua eta gustura sentitu behar du. Beraz, ikasleen arteko elkarrekintza bultzatzeko proposamena da hau. Hartzaile diren ikasleentzat eredugarri izan ohi dira eragile bihurtzen ditugun ikasle nagusiak eta ona da ikus dezaten horiek euskarari garrantzia eman ez ezik euskara erabili ere egiten dutela. Horrenbestez, era horretara aritzeko asmotan bagara, hiruhileko bakoitzean kidetze hori zein ekintzaren bidez hezurramituko den zehaztu eta erabaki beharko dugu lehenik eta ondoren, harreman-sarea antolatzeari ekingo diogu. Data jarri eta aurrera! Tartean prestaketa lanak eginda, noski, arrakasta bermatuta dago.

## ZER EGIN

**Kidetze plangintzaren adidea  
KONTAIDAZU ARREN IPUIN BAT!**

**Ekintzaren deskribapena:**  
DBH-DBHoko ikasleak eragile bihurtzen ditugu HH-LHko ikasleekiko. Ikasle nagusienak txikiagoak diren arduradun bilakatuko ditugu kurrikularra izan daitekeen jardura lantzeko orduan. Beraz, aparteko ahalegin eta ekimenik bideratu gabe, interesgarria da ekintza hori curriculumaren barruan txertatzeko. Horregatik, **Bigarren Hezkuntzako Euskal Hizkuntza eta Literatura arloan literatur testuen lanketarako irakurketari buruzko sekuentzia didaktiko bat biltzen dela kontuan hartuta, ahozkotasunaren helburuak ekintzaren mesedetan jarriko ditugu. (Material curricularrean horrelakorik eskura izan ezean, berariaz prestatu beharko litzaiteke ipuinaren kontaketa edo irakurketa). Adinez nagusiak diren ikasleak haur ipuin baten irakurketa dramatizatua lantzen jarriko genituzke horrela, eta jardun hori dagokion esparruan baloratua izan daiteke, gainera. Prestatutako ipuinak HH-LHko ikasleen aurrean "antzeztu" beharko lituzkete.**

# atzeko atetik



**Jon ALONSO**

IDAZLEA

Euria ari zuen, bazen garaia!, zioen jendeak, larrituta baitzegoen aspaldi ez zuelako tantarik ere botatzen, hainbeste ze urtegiak husten hasiak baitziren, belarra eskasten, zuhaitzak idortzen, dena hautsez betetzen, eta are larriagoa zena, nolabait inoiz batean egarriak egon gintezkeelako susmoa hedatzen, euria ari zuen azkenik, bazen garaial zioten batzuek, eta beste batzuek, horixe da gauza benetan inportanteen ezaugarria, falta arte ez zarela konturatzen, benetan konturatzen.

Euria ari du txikiena eskolara eraman genuenean bere begietatik negarra bezainbeste, esan ohi zuen gure ama zenak, euri handia botatzen zue-nean, eta bere arrazoiak edukiko zi-

## Euria lakoa

tuen. Nik orduan begiratzen diot Asier-txuri, edo Oihanetxuri, eta ez dut negar egiteko gogorik atzematen beren begi irribarretsuetan. Zerbait aldatu da.

Euria bota zuen, gogotik bota ere, eta urtegiak bete ziren, loreak berriz zabalitzen, zuhaitzak edertzen, eguratsa garbitzen, eta trago ederrak egin ahal izan genituen eskasiaren beldurrik gabe, eta orduan denoi ahaztu zitzaigun uraren kontua, berriz ahaztu genuen horixe dela gauza benetan inportanteen ezaugarria, falta arte ez zarela konturatzen, eta inori ez zitzaion burutik pasatu euriari eskerrak ematea. Ezinbestekotasunak horrelako gauzak ditu. Inork euriari eskerrak eman ez, eta aitzitik, bakoitzak bereari ekin zion, eta hasi ziren hurrengo derbiaz, edo hurrengo gobernuaz, edo hurrengo negozioaz edo hurrengo parrandaz. Alegia, benetan inportanteak diren gauzez ahazten garenean inportante jotzen ditugun haietaz. Iratik eta Galderrek zo-

rionsu dirudite, nik ez dut esaten dena perfektua denik, ez horixe, baino zerbait aurreratu da, eta zorionsu dirudite-nez ez diogu hainbeste geure buruari galdetzen ongi ari ote garen, eta seme-alabarik mundura ekartzeko pozaz gogoratzen gara, erantzukizun izugarriaz arinduta. Ongiari ote garen, inoiz ez dago jakiterik segurtasun osoz, baina konparaziorako, ni hezkuntza gris batego ume beldurtua izan nintzen, eta ez dakit beldur horrek ez ote duen nire baitan, oraindik ere, txoko bat gordetzen, normala ohi denaz haratago. Inork ez digu baieztatuko gure gaurko umea ez den izango biharko gaiztoa, edo zoritxarrekoa, baina irrirako -askatasunerako, erabakimenerako, bere buruaren ezagumenerako- bide gehiago eduki ditu guk baino, eta ez da hasiera txarra. Nekez eskertuko dugun arren, euria ere eskertzen ez dugun moduan.

Euria ari du, eta ez dakigun falta. •



**Jesus jaio zen, bai, baina beste urte, egun eta leku batean.**

\* Urtea: gure garaiko egutegia hartuz, K. a. 7 edo 6. urtean.

\* Eguna: Liberio Aita Santuak (352-366) finkatu zuen, data mugiezin bezala, abenduaren 24tik 25era bitarteko gaua (erromatarren Eguzki Garaitezinaren ospakizuna).

\* Lekua: litekeena da Nazareten jaio izana edo, are ziurrago Cafarnaun-en, baina inola ere ez Belenen.

Iturria: PEPE RODRIGUEZ, *Mitos y ritos de la Navidad*, Ediciones B., 1997

# 2006

 **ARGIA**  
egutegia

jai-egunak, ospakizunak, santuak,  
izendegia, eguzkia, ilargia,  
efemerideak, gertakariak, urteurrenak



Azalean, eguzkia eta ilargiari dagozkionak, santutegia  
eta gizon-emakumezkoen euskal izenak.  
Atzealdean, egunarekin lotutako gertaera bitxi eta interesgarriak.

**Hemen duzu egutegirik osoena,  
ARGIAk egindakoa.**

**Egutegia: 7.5 €**

**Taula: 50 € + egutegia opari**



**ARGIA**

ESKAERAK: Tel.: 943 371 545 • [www.argia.com](http://www.argia.com) • [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)



Film baten barruan zer dagoen  
ikusitakoak nahi al duzu?

Hemen duzu proposamen didaktiko bat  
(DVDa + GIDA didaktikoa)

### Liburu-GIDA

- "Begiradaren Heziketa" erabiltzeko GIDA
- Hiztegi teknikoa

### DVDaren osagaiak

- *Ilargiaren Sekretua* filma osorik
  - *Ilargiaren Sekretua* filmaren estrak
  - "Begiradaren Heziketa" proposamen didaktikoa.
- Hor lantzen diren atalak:

- 1.- FILMA EGITEKO PROZESUA
- 2.- GIDOIA
- 3.- IRUDIA
- 4.- SOINUA

- 5.- EFEKTUAK
- 6.- DISEINUA
- 7.- MEZUAK ETA BALIOAK
- 8.- ZINEMAREN BILAKAERA

